

5. BEHE ERDI AROA



Kapitulu honetan 1101. urtetik XIV. mendeko 1379. urtera arteko historia labur emango dugu. Denboraldi horretan Gipuzkoako ibarrak eta lurraldeak antolatu egin ziren, Nafarroako eta Gaztelako erreinuen eraginpean. Hiribildu ugari eraiki zen garai hartan, eta Gipuzkoan sortzen azkenetakoa izan zen Zestoakoa (azkeneko Urretxukoa baino lehentxeago). Zestoan

hiribildua 1383. urtean (irailaren 15ean) sortu baino hiru urte lehenago, 1380. urtean, garai hartako eskribaukek idatzitako bi agiri daude. Horregatik horiek mugarri hartu eta hurrengo kapitulurako utziko ditugu. Zestoako hiribildu sortu berriari dagozkion berriez eta agiriez ekingo diogu, bada, kapitulu hau amaitu ondoren.

5.1. XII. MENDEA

5.1.1. Nafarroako erreinua

Iruñeko erreinua Nafarroako erreinu XII. mendearen erdi aldera bilakatu zen. Pedro I.a erregea 1104. urtean hil zenean, Alfontso I.a *Borrokalaria* anaiak hartu zuen Aragoiko eta Nafarroako agintea. Kordobako emir almorabide indartsuari aurre egiteko Leon eta Gaztelako erreinuetan errege gabe zeuden, zeren eta Alfontso VI.a 1109. urtean hil egin baitzen eta Antso oinordeko semea ere hila baitzen. Orduan Aragoi eta Nafarroako Alfontso I.a *Borrokalaria* Gaztela eta Leongo erregearen Urraka alabarekin ezkondu zen.

Ezkontza hark ez zuen asko iraun, eta senar-emazteak banandu egin ziren, baina Alfontso *Borrokalariaren* alde egin zuten noble askok. Gaztelako eta Leongo erreinuak utzi eta hango arazoak konpondu zituenean, Zaragoza konkistatzeari ekin zion. 1118. urteko abenduan hartu zuen. Hurrengo urteko otsailean Tuteraz jabetu zen. Gerorxeago Tarazona konkistatu zuen. Calatayud eta Daroca hiriak ere hartu zituen 1120. urtean. Lleida bereganatzen ere saiatu zen hurrengo urteetan.

1125. urtean Valentziara eta Murziara iritsi zen bere armadarekin. 1126. urtean Granada inguruan ziren. 1129. urtean ere Alfontso *Borrokalariak* Valentzia aldea inbaditu zuen.

Gaztelako erreinuan Alfontso *Borrokalariaren* alde zeuden gehienak. 1127an Leongo Alfontso VII.a erregeak Burgos hartu zuen, baina Aragoi eta Iruñeko erregea bertara joanda tratua eginarazi zion. *Borrokalariarentzat* izango ziren Antso III.a *Nagusia* hil zenean Iruñearentzat geratu ziren lurak.

1130. urtean Alfontso I.a Baiona setiatzen aritu zen. Urtebete ibili zen borrokan bere armadarekin hiria hartu nahian. Aragoiko eta Iruñeko erregeak Zuberora berea zuen. Bestalde, Biarnoko kondea mendekoa zuen, eta honen aginpidea Amikuze eta Oztibarerraino hedatzen zen. Ez dakigu Lapurdiko bizkondeak zein portaera izan zuen. Baionan Alfontso erregeak testamentua eginda erreinuak orduko hiru ordena militarrei eman zizkien: Tenplekoei, Jerusalemgo San Joango Ospitalekoei eta Hilobi Santukoei. 1134. urtean erregea hil egin zen.

5.1. irudia. Baionako Gaztelu Zaharra.



Erreinuak oinordetzan ez zituzten ordena militarrek jaso. Aragoiko erreinuaren agintaritza Ramiro II.a anaiak hartu zuen, eta Iruñeko erreinukoa Gartzia IV.a Ramirez *Berrezarlea*¹. Iruñeko errege berriari koroa bereganatzeko ezinbestean behar zuen laguntza konde batek eman zion: Ladron Iñigez Gebarakoak, Orbita edo Bela Aznarezen (Gipuzkoan erregearen ordezkari izandakoaren) bilobak, hain zuzen².

1137. urtean Gartzia erregeak Gaztela eta Leongo Alfontso VII.ari aurre egin behar izan zion hiru urtez. Iruñeko erreinuan zeuden Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa, Ladron kondeak eta anaia Lope Iñigezek lurralde horietan agintzen zutelako. Erregeak borroka egin zuen Iruñeko erreinuko hegoaldea eta Aragoi aldeko muga hedatzen, Ramon Berenger IV.ari (Bartzelonako kondeari) aurka eginda.

1150. urtean hil zen Gartzia Ramirez *Berrezarlea* Lizarra ondoan, Deierriko Lorka herrian, azaroaren 21ean. Antso VI.a *Jakituna* semeak hartu zuen agintea. Antso honen garaian hasi ziren, 1162. urteaz gero, lehen Iruñeko erreinua esaten ziotenari Nafarroako erreinua deitzen.

Gaztelako Alfontso VII.ak Errioxa bereganaturik zuen, eta Naiarako erreinurako bere seme Antso III.a oinordeko izendaturik zegoen. Ladron kondea, Geba-

rakoa, Bela semearekin Gaztelako erregearen agindupean jarri zen. Aragoiko Ramon Berenger Bartzelonako kondearekin ere gatazkak zituen mugako lurraldeen gorabeherengatik.

Gaztela eta Leongo Alfontso VII.a 1157an hil zen. Orduan Antso III.a semea Gaztelako errege izendatu zuten, eta Fernando semea Leongo errege. 1158an Gaztelako Antso III.a hil egin zen. 1163. urtean Nafarroako Antso VI.a *Jakitunak* Errioxa osoa (Naiara eta Kalagorri izan ezik) eta Gaztela Zaharreko lurralde batzuk bereganatu egin zituen. Araba eta Durangaldea ere bai, zeren Bela kondea berriz ere Nafarroako erregearen mendera etorri baitzen.

1173an Gaztelako errege Alfontso VIII.ak Errioxa berreskuratzeko gerrari hasiera eman zion, Aragoiko Alfontso II.a lagun zuela. Iruñeraino heldu zen. Nafarroak eta Gaztelak beren gorabeherak Ingalaterrako Enrike II.a erregearen arbitrajearen mende uztea erabaki zuten, eta honek erabakia 1177. urtean eman behar zuen. Enrikeren epaian Nafarroak Gaztelari Logroño, Navarrete, Entrena, Autol eta Ausejo itzuli behar zizkion. Gaztelak Nafarroari, berriz, Legin (Iruñea ondoan, Itzagaondoa ibarrean), Portilla (Arabian, Zanbrana ondoan) eta Godin-ek zeukan gaztelua. Bela Ladron Gebarakoa kondearen lurrak, besteak beste Gipuzkoa barne, Nafarroarako geratu ziren.



5.2. irudia. Logroñoko Santiago eliza.

1190. urtean Antso *Jakituna* eta Aragoiko Alfontso II.a erregea elkartu egin ziren Gaztelari aurre egiteko asmoz. 1191. urtean, berriz, Antso *Jakitunaren* Berengela alaba Ingalaterrako Rikardo I.a *Lehoibihotzarekin* ezkondu zen. Berengelaren anaia (gero Nafarroako Antso VII.a *Azkarra* izango zena) Gaskuñan ibili zen bere soldaduekin Rikardori lagunduz. Antso *Jakituna* 1194. urtean hil zen.

Almohadeek 1195ean Alarcos-en, Ciudad Realen, Gaztelako Alfontso VIII.a garaitu egin zuten, eta errege kristauak larri ziren. Zelestino III.a aita santuak errege kristauak musulmanen aurka elkar hartzera bultzatu zituen. Hala ere, Aragoiko Alfontso II.a hil ondoren Gaztelako erregeak eta Aragoiko Pedro II.a erregeak Nafarroa banatzea hitzartu zuten 1198an. Gaztelako tropak Argako Mirandatik sartu ziren, eta Aragoikoak Burgi eta Oibartik. Orduan Aragoik su-tena eskaini zion Antso *Azkarra* erregeari, eta Nafarroako giroa neurri batean baretu egin zen.

Dena den, 1199. urteko udaberrian, Alfontso VIII.ak Trebiñuri eraso eta Gasteiz ekainaren 5ean hasita setiatu egin zuen abenduaren 22a arte. Bitartean Araba eta Gipuzkoako beste zenbait herri bereganatu zituen. Gasteiztarrek mandataria bidali zuten Andaluziara Antso *Azkarrarengana*, egoera larriaren berri ematera, eta erregeak baimena eman zien errendi zitezen. Gasteiz, Antso *Jakitunak* 1181ean sortutako hiribildua, 1200. urtean errenditu zen³.

5.1.2. Ingelesak Akitanian


Gilermo X.a Akitaniako dukea 1137. urtean hil zenean, Leonor alabak hartu zuen dukerria oinordetzan. Gaskonia eta Ipar Euskal Herriko ia lurralde guztiak ere barne hartzen zituen⁴. Frantziako errege Luis VII.arekin Bordelen 1137an ezkondu zen, eta ezkontzak 1152. urtera arte iraun zuen⁵. Leonor ederra, artezalea, poeten babesle eta oso festazalea zela zioten.

Erreinuari jarraipena emateko semerik izan ez zuelako, ezkontza deuseztatu egin zuten, baina Leonor

urte berean laster ezkondu zen Enrike Plantagenetekin. Enrike 1154. urtean Ingalaterrako errege egin zuten (Enrike II.a). Orduan hasi ziren ingelesak Ipar Euskal Herria bereganatzen. Jendea altxatu egiten zen, ordea, eta Rikardo I.a *Lehoibihotzak* (Leonorren semeak) parte hartu zuen haiek menderatzen. Dirudienez Leonorrek senarraren (erregearen) aurka jardun zuen, eta honek emaztea hamasei urtez preso eduki zuen.

1189. urtean Enrike II.a Ingalaterrakoa hil zenean Rikardo semeak hartu zuen agintea, baina urte asko eman zituen atzerrian Gurutzadatan, eta bitartean Leonorrek gobernatu zuen erreinua. Rikardo semearen eta Antso *Jakitunaren* Berengela alabaren arteko ezkontza prestatu zuen⁴. Leonor 1204. urtean hil zen, baina Ingalaterraren eraginak gutxienez Zestoa hiribildu gisa sortu zen arte iraun zuen; izan ere, 1383. urteko Zestoako hiri-gutunean Ingalaterraren mendeko Gaskonia etsai gisa aipatzen baita.

5.3. irudia. Baionako katedrala.



5.1.3. Gipuzkoa

Nafarroako erreinuaren XII. mendeko gorabeheretan Gipuzkoa bailaratan antolatu zen. Bizkaiko mugan (baina ez Gipuzkoan) zegoen Astigarribiako San Andres eliza. XI. mendean Bizkaia, Araba eta Gipuzkoan erregearen izenean agintzen zuen Lope Iñigez kondeak 1080-1086 bitartean San Andres izeneko eliza hori Donemiliaga Kukulari eman zion, baina eliza sagaratu 1108. urtean egin zuten. Horretarako Donemiliagako abadeak Baionako Bernardo Astarac (edo Lakarra) apezpikuari eskatu zion Astigarribiako eliza sagara zezan. Eliza, Kalagorriko barrutikoa izan arren, Baionako apezpikuak sagaratu zuen². Asmatzekoa da apezpikua Baionatik Astigarribiaraino itsasoz etorri zela, etxeko atetik elizako ateraino. Agiriak honela dio: “Pro iussione abbatis S. Emiliani fuit consecrata ecclesia S. Andree apostoli in Stigarriavia in fine Vizcahie a Bernardo episcopo de Sancta Maria de Lapurde et prior in eodem monasterio Petrus monachus, era millesima centesima quadragesima sexta”⁶.

Oraingo Gipuzkoako zenbait leku aipatzen dira 1101. urtean Aragoiko Pedro I.a erregeak Leireko monasterioari emandako agiri batean: “... dono et confirmo illam ecclesiam sancti Sebastiani, que est in litore maris, in finibus Ernani, cum sua villa, cum suis terminis et pertinenciis omnibus...”, “dono illam pardinam que vocatur Oroztegui... et cum illa aqua que dicitur Hur Humea...”

Beraz, Donostian Sebastian donearen eliza Hernaniko lurretan zegoen, itsas ondoan, baina orduan Hernaniko lurak ez ziren Gipuzkoako parte. 1106. urteko beste agiri batean Paskual II.a aita santuak Baionako elizbarrutiak Donostian zituen mugak zehaztu zituen: “...terra que dicitur Ernania, et Sanctum Sebastianum de Pusico usque ad Sanctam Mariam de Arosth et usque ad Sancta Trianam...”

1125. urte inguruko Iruñeko Antso apezpikuaren agiri batean “... illum honorem de Guendulain, que Sancho de Ypuçcoa misit in Sancta Maria...” dio.

(Apezpiku honek, Antso Larrosak, 1127an Nafarroan Orreagako ospitalea sortu zuen)⁷. 1134-1135 bitartean Taxoareko Lope Enekonesek Aralarko San Migeli Txanpaingo monasterioa eman zion. Agiriak hau dio: “... dono deo et sancto Michaeli de monte Excelso unum monasterium quod vocatur Champayn, cun terris cultis et incultis...”⁶. Oraingo Zaldibiko Santa Fe parrokian zegoen Txanpaingo monasterioa.



5.4. irudia. Zaldibiko Santa Fe parrokia.

XII. mendean zehar beste hainbat agiritan agertzen dira Gipuzkoa eta bertako zenbait leku-izen. Guretzat oso interesgarria da 1186-1188 aldera Iruñeko elizbarrutiaren alde egin zen agiri faltsu bat. Antso III.a *Nagusiak* 1007an egina zela zioten, non Iruñeko elizari bere ondasun guztiak itzuli eta elizbarrutiaren mugak finkatzen baitziren. Apezpikuak baino ez zituen elizak sagaratuko, hamarrenen herenak eramango zituen eta eliza guztietan apaizak hark ipiniko zituen⁷. Bertan Gipuzkoako zenbait izen aipatzen da: “...Oiarzun... Beratequi, Araria, Ozcue, Ernani, Seiaz, Titiar, Yraugi, Goyaz, Erretzil...”⁶ (Oiarzun, Berastegi, Areria, Ozkue, Hernani, Saiaz, Itziar, Iraurgi, Goiatz eta Errezil). Hauek ziren Gipuzkoako ibarrak.

J. Goñi Gaztanbidek argi ematen ditu agiri faltsuaren gorabeherak⁷. Agiri horren arabera, XII. mendean orain Zestoako udalerrriak dituen lurrak hiru bailaratakoak izango ziren: Itziar bailarakoak, Errezil bailarakoak eta Saiaz bailarakoak. Itziarkoak izango ziren Zestoak Urola ibaiaren ezker aldean dituen lur guztiak. Urolaren eskuin aldera dituenetan, Indamendiko

lurrak eta Linatzeta aldekoak izan ezik (hauek Saiazkoak izango ziren), Errezilgo bailaran sartuko lirateke gainerako guztiak⁸.

Bailara hauen arrastoak gero ere ikusi ditugu Zestoako lurretan. 1385. urtean Zestoako hiribilduaren lurrak nondik norainokoak ziren mugatu egin zituzten, eta agiriak honela dio hasi eta laster: “...en el termino de Yçiar, en el lugar que llaman Lyly, ...”⁹, hau da, Urola ibaiaren beste alde, Lili, Itziarko lurretan zegoen. Bestalde, Zestoak, Errezilgo lurretan, Ernio aldera hamabi saroi zituen erdibana Errezilgo udalarekin. XV. eta XVI. mendeko agirietan azaltzen dira. Bi udalak ziren saroi haien jabe, eta badirudi bi herriak ere Errezilgo lurretan zeudela¹⁰. Hauek ziren saroiak: Legarralde (6 gorabilekoa), Komisolatza (6 gorabilekoa), Ezurtza (?), Elkamen handia (6 gorabilekoa), Elkamen txikia (6 gorabilekoa), Ernio-guru-tzeaga (6 gorabilekoa), Zezenarriaga (6 gorabilekoa), Adaolatza (6 gorabilekoa), Gazume (6 gorabilekoa), Bedanburu (6 gorabilekoa), Gallekue (6 gorabilekoa) eta Erdoizta (12 gorabilekoa)¹¹.



5.5. irudia. Errezilgo Erdoiztako eliza.

XII. mendean, dela Gaztelako erregearen izenean, dela Nafarroakoarenean, Gipuzkoan askotan Gebarako familiakoek agindu zuten. Etxe horretako pertsonaia famatu batzuk XII. mendean hauek izan ziren: Iñigo Belez, Lope Iñigez, Ximeno Iñigez, Ladron Nafarroakoa, Bela Ladron I.a (Aralarko San Migelgo patronatua zuena), Pedro Belez, Joan Belez I.a, Iñigo Belez II.a, Pedro Ladron I.a, etab.¹².

XII. mendean Nafarroako Antso VI.a *Jakitunak* (1150-1194) zenbait hiribildu sortu zuen. Donostiari Jacako forua eman zion, nahiz eta testua foru-familia bereko Lizarrakotik eratorria izan. Gasteizi Logroño-ko forua eman zion¹³, baina Getariako hiribildua ere Antso *Jakitunak* edo Antso *Azkarrak* XII. mendean sortua izan behar du; izan ere, 1209. urteko agiri batean Gaztelako Alfontso VIII.ak Donostiako forua berretsi egin zion, baina honako esaldi hau du tartean: “...eo modo quo rex Navarre illud dedit vobis habendum...”¹⁴. Beraz, Nafarroako erregeak eman zien getariarrei hiribilduaren forua.

Mutrikuko hiribildua noiz sortu zen ere ez dago

garbi. Gaztelako Alfontso VIII.ak 1200. urteko abenduaren 31n Toledon agiri bat sinatu zuen, eta bertan Mutrikuko biztanleei erregeari urtero eman behar zioten balea Santiagoko ordenakoei ematea agintzen du¹⁴. Beraz, seguru asko, Mutrikuko hiribildua lehenago sortutakoa dugu.

Gaztelako Alfontso VIII.ak Gipuzkoa 1199 eta 1200. urtean bereganatu zuen, eta harrezkero Gaztelako erreinuko zati izango zen Erdi Aro osoan, etenik gabe. Gertaera haien berri garai hartatik laster idatzitako bi lanek ematen dute. Bata “Crónica Latina de los Reyes de Castilla” izenekoa da, eta bestea Rodrigo Ximenez Arradakoa artzapezpikuaren “De Rebus Hispaniae” izenekoa. Alfontso VIII.ak hauek lortu zituela dio: “Victoriam ibidem Alavam et Guipuscua”, eta Gipuzkoaren barnean hauek bereganatu zituela: “Alchorroza... terram que dicitur Ipuscaia, Sanctum Sebastianum insuper”. Alderdi horietako gazteluak ere izendatzen dira: “Sanctum Sebastianum, Fontem Rapitum, Beloagam, Aizcorroz, Ausam, Athavit”⁸. Bergarako Elosuko gaztelua ere zerrenda horretan sartzen dute².



5.6. irudia. Bergarako Elosuko gazteluaren aurriak.

Beraz, Gipuzkoan hartutako gazteluak hauek ziren: Donostiakoa, Hondarribikoa, Oiartzungo Beloagakoa (edo Feloagakoa, Arkaleko bidean), Eskoriaztako Bolibarko Aitzorrozkoa, Abaltzisketa eta Zaldibiko mugan Ausakoa eta, Ataunen, (Athavit) “Jentilbaratzakoa”¹⁵.

1199-IV-19an, bestalde, Nafarroako Funesen Martin Zubitzak eta haren emazteak Bargotako Ospitaleari (Jerusalemgo San Joaneko ordenakoei) Lazkaon eta “Iviazabal”en (Idiazabalen) zituzten ondasunak eman zizkioten¹⁶.

5.2. XIII. MENDEA

5.2.1. Hiribildu berriak Gipuzkoan

Gaztelako Alfontso VIII.ak, Araba eta Gipuzkoaz jabetu ondoren, ez zuen nonbait kontzientzia lasai, eta 1204an egindako testamentuan Araniello-ko (Aranoko) zubitik Hondarribirainoko lur guztiak eta Arabako zenbait gaztelu Nafarroari itzultzea agintzen zuen. Gero, ordea, gaztelu horietako batzuk baino ez zituen itzuli³.

Gipuzkoan, gure ustez, XIII. mendearen hasierarako hiru hiribildu sortuta zeuden: Donostia (1180), Getaria (Donostiako forua Nafarroako erregeak eman da) eta Mutriku (Alfontso VIII.ak 1200. urtean urteroko balea Santiagoko ordenari ematea agindu zuen)¹⁴.

Laugarren hiribildua, Hondarribia, Gaztelako Alfontso VIII.aren 1203ko apirilaren 18ko hiri-gutunaren eskutik sortu zen. Palentzian sinatutako agiri horretan Donostiako forua eman zion. Oiartzun ibaitik Hondarribiko ibairaino eta Aiako Harritik itsasoraino (“...et de Pena de Aia usque ad mare...” (sic), hau da, “Pena” euskaraz bezala singularrean dela) eta Lesakatik itsasoraino hartzen zuen hiribilduak. Beraz, barne zituen Oiartzun aldea, Irun eta Lezo.

Gipuzkoan sortutako bosgarren hiribildua Zarautz izan zen. Gaztelako Fernando III.a erregeak Donos-

Nabigazioari dagokionez, euskaldunak beren itsasontziekin aspalditik ibili ziren kabotajearen Ozeano Atlantikoan eta Mediterraneoan. 1130. urtean Baiona setiatzen euskal itsasontziak ibili ziren. Donostiako Foruan, berriz, bertako ontziak eta kanpoko ontziak bereizten dira. Bestalde, XII. mendearen amaieran (1191. urtean) Ingalaterrako Rikardo *Lehoibihotza* Baiona eta Ipar Euskal Herriko itsasontzietan Gibraltarko itsasartea zeharkatuta Proventza, Zipre eta Lurralde Santuraino iritsi zen Gurutzadan.

tiako forua eman zien Burgosen 1237ko irailaren 28an idatzitako hiri-gutunean. Ondoren Tolosa dugu, seigarrena, Gaztelako Alfontso X.aren 1256-IX-13ko hiri-gutunarekin. Gasteizko forua eman zion Segovian sinatutako agirian¹⁴.

Badirudi 1256. urtean sortu zela Goierriko Segura hiribildua ere (Gipuzkoako zazpigarrena). Hiri-gutuna galdu bazen ere, 1290-IV-18ko agiri batean Gaztelako Antso IV.ak aita Alfontso X.aren agintaldian sortu zela dio¹⁷.

Hurrengo sortutako hiribildua, zortzigarrena, Arrasatekoa dugu. Gaztelako Alfontso X.ak Eznatorafeko San Estebandik (Jaendik) bidalitako hiri-gutunaren Gasteizko forua eman zien, “Arressate” (sic) izeneko lekuan “Montdragon” izeneko hiribildua eraiki zezaten. Gebaratarren lurren ondoan zegoen¹⁸. Arrasateko harresiak 0,9 metroko lodiera eta 1,95 metroko altuera ditu¹⁹.

Gaztelako Alfontso X.ak 1268-VII-30ean sinatu zuen agiria Sevillan Ariznian (edo Ariznoan) Bergarako hiribildua egin zezaten, “Villanueva” izenaz. Gasteizko forua eman zien. Egun eta leku berean errege berak beste hiri-gutun bat ere sinatu zuen, Ordizian beste hiribildu bat “Villafranca” izenaz sortzearen. Gasteizko forua eman zien hauei ere. Hauek



5.7. irudia. Bergara. Ariznoako San Pedro eliza.

izan ziren Gipuzkoan XIII. mendean sortutako azken biak (bederatzigarrena eta hamargarrena) ¹⁸.

Garbi ikusten da lehen bost hiribilduak kostaldean ezarri zirela Donostiako foruaz, eta gainerako bostak, barnealdekoak, Gasteizko foruaz. Donostia, Hondarribia, Getaria?, Mutriku?, Zarautz, Segura, Ordizia eta Bergara erregeak sustaturik sortu ziren, batez ere mugak babesteko. Biztanleen ekimenez sortu ziren, ordea, Tolosa eta Arrasate.

Hiribilduaren ezaugarri bat harresiz inguratuta egotea zen. Harresietan portaleak zeuden, kanporako komunikazioa zabaldu edo ixteko. Harresi barruan portaleek erabakitzen zuten barruko kaleen nondik norakoa. Bestalde, hiribilduan agintaritza zegoen, hiribilduarenak ziren lurraldeetan aginpidea zuena¹⁸.

Nahiz eta hiribildu osoa sortu ez, 1294-VI-24an Gaztelako Antso IV.ak Itziarri hiri-gutuna eman zion, “Monterreal” izena eta Gasteizko forua izan zitzaizkion¹⁴.

Hurrengo mendean lekuz aldatu eta Deba ibaiaren ondoan eraikiko zuten Deba hiribildua. Gasteizko foruaren edukia aztertu nahi izanez gero, ikus Santiago Villimer jaunaren lana²⁰.


XIII. mendearen lehen erdian Deba arroaren lurralde guztiak Gipuzkoari erantsi zitzaizkion. Gaztelako mesetatik Bizkaiko itsasorako bide naturala kontrolatu nahi zen. Gainera, hiribilduekin Gipuzkoa bailaratan banatzea apurtu egin zen. Ondoren, senide-tasunean oinarritutako harreman soziopolitikoak desagertu egingo ziren, eta lurralde-harremanek ordezkaturiko zituzten. Lehengo Hernani, Oiartzun, Itziar, Saiaz, Errezil, Azeria eta Ozkue ibarretako jendea hiribilduek erakarri zuten.

Hiribilduak sortzearekin batera Gipuzkoan lehengo lurraldeetan agintzen zuten jaunak eta senide taldeak,

beren interesak kaltetu egiten zirela eta, Alkatetza Nagusitan antolatu ziren. Lehenbizi Aiztondoko Alkatetza Nagusia sortu zen, 1203. urtean Saiaz eta Hernani ibarretako erdi aldeko eta goi aldeko lurrak bilduz⁸. Beste biak (Saiazkoa eta Azeria) XIII. mendearen erdi aldera sortuko ziren. Aiztondoko Alkatetza Nagusiak hauek hartzen zituen: Asteasu, Larraul, Sorabilla, Lasarteren zati bat eta Astigarraga. Azeria Alkatetza Nagusian Lazkao, Olaberria, Itsaso, Arriaran, Gabiria, Ezkio eta Zumarraga zeuden. Saiazkoak, berriz, hauek ziren: Aia, Beizama, Goiatz, Errezil eta Bidania.

1296-V-4an Bizkaiko itsasoko kostaldean zeuden hainbat hiribilduk eta Gasteizek “Paduretako Ermandadea” sortu zuten, elkarren arteko merkataritza babestearren. Hiribildu hauek elkartu ziren: Santander, Laredo, Castro Urdiales, Gasteiz, Bermeo, Getaria, Donostia eta Hondarribia¹⁴.

5.8. irudia. Hondarribiko gaztelua.



5.2.2. Gipuzkoa Nafarroaren eta Gaztelaren artean

Gaztelako Alfontso VIII.ak, Araba eta Gipuzkoa 1200. urtean bereganatuta, Nafarroa itsasorako irtenbiderik gabe utzi zuen. Orduan Nafarroako Antso VII.a *Azkarra* Baionako burgesekin eta Ingalaterrako Joan *Lurgabea* erregearekin elkartu zen, eta itsasorako irtenbidea lortu zuen. Gero, ordea, batez ere XIII. mendearen azken aldera, Nafarroako merkatariei Gaztelako erregeak baimena eman zien Hondarribiko, Donostiako eta Gipuzkoako portuak erabiltzeko¹⁴. Nafarroako Antso *Azkarra* erregea finantzari bikaina izan zen, eta erregeei nahiz jaunei maileguz dirua ematen zien.

1212. urtean musulmanen aurka hauek elkartu ziren: Gaztela, Nafarroa eta Aragoiko erregeak (Alfontso VIII.a, Antso VII.a eta Pedro II.a), Arnaldo (Narbonako artzapezpikua), Errodrigo Ximenez Arradakoa Toledoko artzapezpikua... (Leongo erregeak, Alfontso IX.ak, ez zuen parte hartu). Gurutzadan musulmanei aurka egitera joan ziren. Jaengo Navas de Tolosako bataila irabazi eta almohadeek ihes egin zuten. Nafarroako armarriko kateak bataila hartan Antso erregeak hautsitakoak dira. Antso *Azkarra* gizaseme handia zen, 2,28-2,32 metroko garaierakoa. Altxor handia ere bereganatu zuen Nafarroako erregeak³. Bataila hartan, dirudienez, Esteban Aizarnatea aizarnarrak parte hartu zuen. Baita Azpeitiko Etxaniz etxeko zaldunek ere²¹. Lope Isastik dioenez, Joan Beltran Iraeta jauna izan zen Gipuzkoak Gaztelako Alfontso VIII.ari (1158-1214) mairuen aurka gerra egiteko emandako soldaduen kapitaina²². Azken hiru albiste hauek, dena den, ez dira fidagarriak. Durangaldea urte hartantxe bildu zen, bestalde, Bizkaiko jaurrerrira⁴.

1234. urtean hil zen Tuteran Antso VII.a *Azkarra*, Orreagan hilobiratuta dagoena, eta urte berean altxatu zuten errege Iruñean Teobaldo I.a, Champagneko kondea. Gaztelako Fernando III.a erregeari honen seme Alfontsoekin haren alaba Blanka ezkontzea proposatu zion³. Fernando erregeak Teobaldoren bizialdi osorako Nafarroari Gipuzkoa osoa eman

zion, Hondarribia eta Donostiako plazekin, Mendikuteko (Albiztur) gazteluarekin eta Lope Diaz kondeak Antso VII.a *Azkarra* kendutako gaztelu eta lurrekin: "... damus predicto regi totam Ypuzcuam, Fontem Rabiam, Sanctun Sebastianum et castrum Montis Acuti, quandi uixerit possidenda, necnon omnia castra et totam terram quam domnus Lupus a domino Sancio rege Nauarre bone memorie adquisiuit"¹⁴.

1238. urtean Nafarroako Antzinako Forua idazten hasi ziren. Nafarroako erregeak foruak gordetzea zin egin zuen, eta zehaztu egin nahi zituzten erregeak mendekoekiko zein betebeharrak zituen. Hurrengo urtean, 1239. urtean, Teobaldo erregea Gurutzadan abiatu zen Leku Santuetara. San Joan Akrekoan ibili eta Jerusalem hartu zuten. 1240. urtean itzuli zen. Teobaldo I.a erregea trobadora zen, eta zenbait kantu egin zuen, letra eta guzti³.

1248. urtean, azaroaren 23an, Gaztelako Fernando III.a erregeak Sevilla hartu zuen. Laguntzaile izan zituen Aragoiko, Galiziako, Bizkaiko (Diego Lopez Harokoaren gidaritzapean), Nafarroako eta Portugalgo tropak. Getariako jendea ere hantxe zen musulmanen aurka¹⁴. Bi urte lehenago Gaztelako Fernando III.ak Bonifaz almiranteari agindua eman zion Bizkaiko golkoko portuetan itsas armada presta zezan. Gerrarako itsasontziak Santander, Muskizko Pobeña, Portugalete, Pasaia eta Getarian prestatu ziren. Sevilla 1248ko azaroaren 23an errenditu zen, eta euskal marinel asko bertan geratu ziren. Haiekin eraiki zituen erregeak han bertan arma-lantegia eta ontziola²³. Lope Isasti historialariak dioenez, Pelegrin Urantzu irundarra ere han zen borrokatzen²⁴.

1249. urtean, berriz, Nafarroa Beherea Nafarroako erreinura bildu zen⁴.

1252. urtean gipuzkoarrek berriz ere parte hartu zuten Gaztelako erregearentzat, itsas armada prestatu eta Marokon borroka egin zezan²⁴.

Teobaldo I.a erregea 1253. urtean hil zen, eta Teobaldo II.a semea izan zen Nafarroako hurrengo erre-

gea. Honek Antzinako Foruaren arabera zin egin zuen, eta 1255. urtean Frantziako San Luis erregearen alaba Isabelekin ezkondu zen³. Hurrengo urtean, 1256an, Gasteizen Gaztelako Alfontso X.aren ituna egin zuen. Gaztelakoak Donostia eta Hondarribia utzi zizkion Nafarroako erregeari bizi zen artean goza zitzan¹⁴.

1262an gipuzkoarrek berriz ere parte hartu zuten Gaztelako erregearen itsas armadan, eta Cadiz konkistatzen lagundu zuten²⁴.

Nafarroako Teobaldo II.a erregea 1270. urtean berriz abiatu zen Gurutzadan. Tunisiara iritsi zen Frantziako San Luis erregearekin batera. Han hil zen San Luis, eta Teobaldo II.ak testamentua egin zuen, izurriteak jota gaixo zegoelako. Trapani-n hil zen urte hartako abenduaren 4an.

Enrike I.a, Teobaldo II.aren anaia, izan zen Nafarroako errege 1270-1274 denboraldian. Joana alaba utzi zuen tronurako, Blanka Artoiskoa emazte alarguna erregeorde izanik. Blanka amak eta Frantziako Felipe III.a *Ausartak* alaba erregearen seme batekin ezkontzea adostu zuten. Frantziako erregeak babestuko zuen Nafarroa ezkontza gauzatu arte³.

1270.eko hamarkadan gipuzkoarrek itsasoz parte hartu zuten Algecirasko setioaren porrotean, baina Gibraltarren eta Tangerren arrakasta izan zuten, hurrenez hurren, 1284an eta 1292an. Euskaldunek mastetan eta beletan hobekuntzak egin zituzten, eta itsasontziek erosoago eta seguruago nabigatzen zuten²⁴. Bestalde, 1284an, Barakaldon Burtzeñako monasterio famatua eraiki zuen Andre Maria Mese-detakoaren ordenak. Ordena horretako kideak musulmanek preso hartutako kristauak askatzen saiatzen ziren²³.

Nafarroako Joana I.a erregina 1284an ezkondu zen Felipe I.a *Ederrarekin* (Frantziako erregearen semearekin). Hurrengo urtean, 1285ean, aita hil zitzaionean, Felipe aldi berean Frantziako eta Nafarroako errege izan zen 1305. urtera arte³.

Mendearen amaieran, 1300. urtean, Diego V.a Lopez Harokoa jaunak Bilbo hiribildua sortu zuen⁴.

XIII. mendearen hasiera aldera bestalde, 1212. urtean, gipuzkoarren itsasontziek Baionari eraso eta hartu egin zuten Gaztelako Alfontso VIII.a erregearentzat. 1242. urtean, berriz, Baionan itsasontzi ugari bildu zen Ingalaterrako Enrike II.aren alde Arroxe-la eta ingurua kontrolatzearren. Urte batzuk geroago, 1248. urtean, Gaztelako Fernando III.a erregeak Euskal Herriko itsasontziak eta gizonak erabili zituen Guadalquivir ibaian musulmanei erasota Sevilla hiria eskuratzeko. Geroago, 1278. urtean, Eduardo I.a Ingalaterrako erregeak Gaztelako Alfontso X.ari baimena eman zion Baionan bertako zur eta zurginekin “galeak” egin zitzan. Ingalaterrako erregearen 1294. urteko agirietan, berriz, Baionako hiru merkantzia-ontzik osatutako konboia azaltzen da. Izan ere, euskal itsasontziak XIII. mendean arrantzarako eta merkantzia-garraiorako ziren. Erregeak, ordea, laster ohartu ziren ontzi haiek gerrarako soldaduak eramateko ere egokiak zirela.

5.2.3. Gipuzkoako elizak

Gaztelako Alfontso VIII.ak 1200. urtean Gipuzkoa bereganatu bazuen ere, bertako lurraldeek lehengo elizbarrutietako parte izaten jarraitu zuten. Baionarekin izan ziren, adibidez, Irun, Oiartzun, Lezo eta Errenteria Gipuzkoan, eta Baztan Nafarroan 1566-IV-30a arte. Hau da, 1566an Iruñeko elizbarrutira pasatu ziren Nafarroa Garaiko goi nafarreraz mintzatzen zirenak. 1862. urtera arte Kalagorriko elizbarrutikoak izan ziren Oñati, Elgoibar, Eibar, Soraluze, Bergara, Elgeta, Antzuola, Aretxabaleta, Eskoriatza, Arrasate, Mendaroko Azpilgoeta eta Mutrikuko Astigarribia, hau da, bizkaieraz mintzatzen zirenen lurraldea. Horiek eta Gipuzkoako gainerako lurrak 1862-IV-28an Gasteizen sortu zen elizbarruti berrira bildu ziren. Gipuzkoako elizbarrutia, berriz, 1950. urtean sortua da²⁵.

Iruñeko elizbarrutian Gartzia Ferrandez izan zen XIII. mendeko lehen apezpikua (1194-1205).

Antso VII.a *Azkarrak* tenplarioei (ordena erlijioso-militarrari) ondasunak kendu egin zizkien, baina Gartzia apezpikuak Jerusalemgo San Joango Ospitaleko ordenari ondasunak eman egin zizkien. Orreagako monasterioa ere apezpikuarekin oso lotuta zebilen.

Joan Tarazona izan zen hurrengo apezpikua (1205-1211), eta Esparago de la Barca (1212-1215) jarraitu zitzaiona. Gilermo Santogne 1216-1219 bitartean izan zen Iruñeko apezpiku. Remiro Navarra apezpikuak hartu zion txanda (1220-1228). Hauek dira apezpikuen zerrenda osatzen dutenak: Pedro Ramirez Piedrolakoa (1230-1238), Pedro Ximenez Gasolazkoa (1242-1266), Armingot (1268-1277), Migel Santxez Unicastillokoa (1277-1287) eta Migel Periz Legariakoa (1287-1304)⁷.

Iruñeko elizbarrutiarekin muga eginez Kalagorriko elizbarrutiko Astigarribiako San Andres eliza zegoen. Bertan arkeologoek egindako indusketetan txanponak azaldu ziren, eta horiek garbi adierazten dute bertako auzokideak elizan ehorzten zituztela XIII. mendean gero (XVII. mendera arte)²⁶.

Dena den, 1215. urtean Erroman Inozentzio III.a aita santuak deituta Laterango IV. kontzilioa ospatu zen, eta bertan, besteak beste, eliza eta parrokiatarako arau garrantzitsuak onartu ziren; elizetako hamarrenak eta hasikinak legez ordaintzea, adibidez¹². Elizak parrokia izateko hiru baldintza bete behar zituen: barruti mugatua izatea, bertan sakramentuak ospatzea eta apaiz arduraduna edukitzea. Lehendik zeuden elizak erregearen ordezkoez edo jaun aberatsek eraikitakoak ziren. Bertako eliztarren hamarrenak eskuratzea zuten helburu nagusia, eta jaun partikularrek patronatua beren esku zuten. Elizako apaiza ere (bikarioa) patronatua zuen aukeratzen zuten.

Laterango IV. kontzilioan baserritarrei (gutxienez bederatzi etxeko elkarteak sortuta) beren parrokia eraikitzeke ahalmena eman zitzaion. Bertako apaiz arduradunak parrokiaren barrutian bizi behar zuten, eta eliztarrei dotrina irakatsi behar zuten. Eliztarrek, berriz, gutxienez urtean behin konfesatu eta Pazkoako jaunartzea egin behar zuten. Elizaren patronatua eliztar etxejabeena izango zen (beraz, hamarrenak hauek kudeatuko zituzten), eta apezpikuak izendatuko zuten apaiza. Etxez etxe joanda



5.9. irudia. Astigarribiako San Andres eliza.

boto gehien jasotzen zuena hautatuko zuen apaiz apezpikuak. Apaiz bat baino gehiago baziren, arduradunari “erretore” esaten zitzaion. Elizan jasotako hamarrenak honela banatzen ziren: laurdena apezpikuarentzat, beste laurdena elizari eusteko, bestea apaiza mantentzeko, eta azken laurdena eliztar ezinduei laguntzeko.

Eliza berri haien barrutiak eraikitzaileen lurrak ziren, eta horrela auzo bihurtu ziren parrokiaren inguruan. Parrokiak bataio-pontea, sagraioa eta hilerria eduki behar zituen. Apaizak jaietako mezan hitzaldia egin eta arratsaldetan dotrina irakatsi behar zuen²⁷.

Gure artean Aizarnako parrokia eta Aizarnazabalgoa ditugu “erretorea” dutenak. Ez dakigu noiz eginak diren. Zestoako parrokia XIV. mendean eraiki zuten hiribilduan. Leintz bailaran guztira 18 parrokia dira XV. mendera arte zeudenak²⁸. Zenbait parrokia tenplarioena izan zela ere esan izan da, baina baieztatzen duen agiririk aipatu gabe. Hain zuzen arazo honi buruzko iritzi interesgarria eman zuen Manuel Lekuona apaiz jaun zenak²⁹.

Interesgarria da, bestalde, Nafarroako Orreagako monasterioak Gipuzkoan zer lur eta ondasun zituen jakitea. Zumaian Andre Mariaren eliza zuen 1292-III-1ean Gaztelako Antso IV.ak Burgosen sinatutako agiriari esker¹⁴, baina eliza hori Orreagarena gutxienez 1203. urteaz gero zela diote, aipatutako agiria original zaharragoaren kopia delako³⁰. Hurrengo mendean, XIV.ean, elizaren izena aldatu egin zioten, eta San Pedro eliza da, harrezkero, lehen Andre Mariarena zena³¹. Egia esan, Zumaiak Orreagarekin eta inguruko herriekin (Zestoarekin Getariarekin eta Debarekin) auzi ugari izan zuen, jabetza zela eta, hurrengo mendeetan.

Orreagak Gipuzkoan beste ondasun hauek ere bazituen: Iria eta Andatza (Irisasi izenekoa) mendiak, Izaur eta Lipuzal lekuekin (Zizurkil, Aia, Usurbil eta Oria ibaiaren artean zeuden), saroiak “Brumea” edo “Urumea” izeneko lekuan (Oiartzun eta Hondarribian) eta saroiak Aralarko Gipuzkoako aldean (Amezketan, Abaltzisketa eta Zaldibian)³².



5.10. irudia. Zumaia eta San Pedro eliza.

5.2.4. Gaizkileak Gipuzkoa eta Nafarroa arteko mugan

XII. mendean goseteak izan ziren zenbait urtetan, 1250.ean, adibidez³³. Lehenagotik ere jendeak abereak lapurtzen zituen mendian, eta Iruñeko apezpikuak 1216. urtean eskumikua eman zien edozein ordena erlijiosori (tenplarioei, Jerusalemgo San Joangoi edo Orreagako ospitaleko fraideei) behiak, ardiak edo beste gauzak lapurtzen zizkietenei¹⁶.

Gipuzkoak eta Arabak Nafarroarekin zuten muga gaizkileen gune nagusia zen. Mugaren alde batean zein bestean abereak lapurtu, etxeak erre, errotak hondatu eta beste hainbat bidegabekeria egiten zuten. 1261. urtean Nafarroako Burunda ondoko Ezneatean, besteak beste, Diego Lopez Salzedokoa (Gipuzkoa eta Arabako merio nagusia) eta Nafarroako Klemente Launay seneskala elkartu ziren, eta elkarri gaizkileen bidegabekeriengatik zeuzkaten kexak jakinarazi zizkieten³.

Bidelapurretako gertaerak 1261, 1265-66, 1276, 1279, 1290, 1291, 1294 eta 1298an izan ziren behintzat. Gipuzkoarrek eta nafarrek elkarri ganadua lapurtzen zioten, eta 1276ko lapurretan gipuzkoarrak Lazkanoko etxeak ziren³². Harrezkero famatuak izango ziren Lazkanoko jauntxoak. Pierre Beaufort jaunak, Nafarroako Mendialdeko merioak, 1290. urtean Gipuzkoara espedizioak egin zituen Burundan eta Larraunen lapurtutako abereak berreskuratu asmoz. Gauza bera egin zuen hurrengo urtean Pierre Beauforten ordezkari Gartzia Martinez Oianederrekoak, nafarrei harrapatutako abereak berreskuratu eta Gipuzkoako agintariekin mugan bakea ezarri nahian³⁴.

Nobleziako beste familia bat gebaratarrena zen. Gipuzkoak, XIII. mendean sortutako hiribilduei esker, lehen ez bezalako garrantzia zuen, bi erreinuko mugan zegoelako. Gebara familiak sortetxea Araban izan arren, Oñatiko jaurgoa berea zuen. Oñati, ordea, orduan ez zen Gipuzkoako zati. Hortik familiaren adarren bat Zumaia, Zarautz eta Gipuzkoako kostaldeko beste lekuren batera zabaldu zen³². Gero Zesto-

an ere eragin handia izan zuten gebaratarrek. Gure ustez Zestoako armarriko makal-hostoak gebaratarren armarrikoak dira. Gainera Iraetako etxeak Ahai-de Nagusiekin senidetu egin ziren. XIII. mendean famatu izandako gebaratar batzuk hauek ditugu: Antso Perez Gebarakoa (Pedro I.a Ladronen bigarren semea), Martin Perez Abendañokoa, Pedro II.a Ladron, Fernan Ladron, Ladron II.a Perez, Pedro Ladron Bidaurrekoa, Joan III.a Belez, Nuño Ibañez Gebarakoa, Pedro Belez Ladron, Bela II.a Ladron eta Beltran I.a Ibañez Gebarakoa¹².

Gipuzkoan XIII. mendearen amaiera aldera hasi ziren hainbat biztanle leinu ahaltsu biren inguruan biltzen: oñaztarren eta ganboatarren inguruan, hain zuzen. Leinu bakoitzaren buru Ahaide Nagusia zen. Bere tropak zituen gerrarako, eta familiako ondasunak kudeatu behar izaten zituen. Zenbaitetan, egiten zizkieten irain eta hilketengatik, mendeku hartu beharra ere izaten zuen³⁵.

Gipuzkoa eta Araba Gaztelak 1200. urtean bereganatu zituenean, "Ebroz bestaldeko Merindadean" sartu zituen. Beraz, merio nagusi batek bideratzen zituen merindade horretako auziak. Gipuzkoan hiribilduen eskumenetik kanpo zeuden lurretan zeukan aginpidea. Gipuzkoak berak bakarrik XIV. mendean osatu zuen merindadea. Gipuzkoako merio nagusi Diego Lopez Salzedokoa azaltzen da honako urte hauetan: 1261, 1272, 1279, 1282, 1294 eta 1298an. 1291ean, berriz, Antso Martinez Leibakoa izan zen³³.

5.3. XIV. MENDEA (1379. urtera arte)

5.3.1. Hiribildu berri gehiago Gipuzkoan

Gipuzkoan XIV. mendean, lehengo hamarrez gain, beste 15 hiribildu sortu ziren Gaztelako erregeen eskutik. 1310-II-20an Fernando IV.a erregeak Sevillan sinatu zuen hiri-gutuna Iraurgiko Garmendian (Azpeitian) hiribildua eraiki zezaten. Hiri-gutunean ez dugu irakurri erregeak zein foru eman zien azpeitiarrei, baina hurrengo urtean Valladoliden (1311-VI-1) sinatutako agiri batean hiribilduari “Ssaluatierra” izena ipini zion. Horrez gain “Ssorearssu”ko monasterioa ere eman zien, besteak beste, eta Gasteizko foruaren arauak izango zituzten gobernatzeko.

Urte batzuk geroago, 1320-IV-5ean, Gaztelako Alfontso XI.a erregeak Valladoliden sinatu zuen Oreteta izeneko lekuan hiribildua eraikitzeke hiri-gutuna. “Villanueva d’Oyarço” (oraingo Erreterria) izena izango zuen hiribilduak. Donostiako forua eman zien erregeak¹⁴. Hiri-gutunean Oreteta izena agertzen da, noski, baina bi mende geroago (1565-IX-23) Gipuzkoako Batzar Nagusietako aktetan “Orienereta” forma ere agertzen da leku bera adierazteko³⁶.

1324ko urtarrilaren 4an Gaztelako Alfontso XI.a erregeak beste hiri-gutun bat sinatu zuen Iraurgiko Azkoitiko San Martinen hiribildua egin zezaten. Arrasatekoen forua eman zien gobernatzeko. Halaber, erregeak agindua eman zuen Getariatik Arrasatera, eta alderantziz, zebiltzan bidaiariei Azkoitiko San Martindik igaro zitezten. Bestela ehun maraiko isuna ordaindu beharko zuten. Zazpi urte geroago, 1331-VII-9an, errege berak Illescasen beste agiri bat sinatu zuen. Bertan dioenez, azkoitiarrek eskaera egin zioten San Martin utzi eta hiribildua Baldako Santa Mariaren monasterioaren ondoan egiteko. Iraurgiko “Miranda” izango zen hiribildu berriaren izena¹⁴.

Ez dakigu Leintz Gatzagako hiribildua noiz sortu zen, baina zenbaitek 1331. urtekotzat jotzen du, Alfontso XI.a erregearen hiri-gutunaz eta Logroño

edo Arrasateko foruaz, hain zuzen, sortutakotzat¹⁸. Egia esan, hiri-gutuna Gatzagako hiribilduan 1331. urtean izandako sutean galdu egin zen, baina hiribildua bera lehenago sortutakoa da, Alfontso XI.aren agintaldian¹².

Aipatutako errege berak 1335-IX-13an Valladoliden sinatu zuen hiri-gutuna Maiako landetan, Bizkaiako mugan, Elgeta izeneko hiribildua eraiki zezaten. Gasteiz eta Arrasatekoen forua eman zien. 1338-VIII-20ko beste agiri batean Gipuzkoako Ladron Geba merio nagusiari Elgetara joan eta hiribilduari egokiak ziren herri-lurrak zehaztu eta finkatzea agindu zion. Lan hori merioaren Albaro semeak egin zuen 1339-VIII-29an.

1343ko ekainaren 17an Alfontso XI.a erregea Algeciras setiatzen ari zela, agiri bat sinatu zuen, Itziarren hiribildua egin ordez Deba ibaiaren ondoan eraiki zezaten. Lehen bezala Gasteizko forua izango zuten¹⁴. Itziarko hiri-gutuna 1294-VI-24an Gaztelako Antso IV.ak emana zuen, eta harrezkero bederatzi urte igaro ziren. Beraz, bederatzi urte horietan Itziarren zenbait etxe eraikiko zutela pentsa liteke. Agian harresi zatiren bat ere bai. Kaleak osatuz ikusten dira orain bertako zenbait etxe. Beraz, arkeologiak argitu beharko du itziartarrek, Deba ibaiaren ertzera hiribildua eraikitzeke joan baino lehen, zer-nolako eraikinak eginak zituzten¹⁴.

Urte berean sortua da, dirudenez, Soraluzeke hiribildua. Errege berak 1343-X-15ean Logroño forua eman zien Soraluzen “Placencia” izeneko hiribildua eraiki zezaten.

Foru bera eman zien delako Alfontso XI.a erregeak Eibarkoei ere, 1346-II-5ean, “Villanueva de San Andres” hiribildua egiteko¹⁸.

1346-XII-20an Villarrealen egindako hiri-gutunean Elgoibar izeneko landetan “Villamayor de Marqui-



5.11. irudia. Itziarko Galtzada kalea.

na” izeneko hiribildua egiteko baimena eman zien Gaztelako Alfontso XI.ak. Logroño edo Arrasatekoen forua ere eman zien.

Valladoliden sinatu zuen errege berak, 1347-VII-4an, Zumaiarentzat hiri-gutuna. “Villagrana de Çumaya” deituko zitzaion, eta Jacako foruaz (Donostia, Getaria eta Mutrikukoek zutenaz) gobernatuko ziren aurrerantzean. Saiatzko biztanleen eskariz eman zien hiri-gutuna¹⁴.

Gaztelako Enrike II.a erregeak, 1371-IX-4an, Zamorako Toroko gorteetan hiri-gutuna eman zien usurbildarrei “Belmonte de Usurbil” izenaz hiribildua egin zezaten. Donostiako forua izango zuten gobernatzeko.

1379-VII-12ko hiri-gutunaz sortu zen Orioko hiribildua. Gaztelako Joan I.a erregeak Burgosen sinatu zuen, “Villarreal de Sant Nicolas de Orio” izena eta Donostiako forua emanaz.

Urte horretarako Hernaniko hiribildua ere sortua zen. Ez dakigu zehatz zein urte eta egunetan, baina 1379ko abuztuaren 2an Donostiako eta Hernaniko Kontzejuek hitzarmena egin zuten, eta bertan Hernaniko hiribildutik (“villa” dio) Gartzia Etxegarai alka-

tea agertzen da beste bi zinegotzirekin⁹. Beraz, ordu-rako Hernanik hiri-gutuna lortua zuen. Donostiako foruaz baliatzen zen¹⁸.

Aipatu ditugun hiribilduetatik Errenteria, Deba, Eibar, Elgoibar, Zumaia, Usurbil eta Orio eraikitzeko, bertako biztanleek eskatuta eman zuen erregeak hiri-gutuna⁹. Batzuetan erasoetatik babestu nahi izaten zuten. Eibar eta Azkoitia, adibidez, bizkaitarren erasoen beldur ziren. Markinak eta Elorriok, berriz, gipuzkoarren erasoeri zieten beldur. Hala ere, merkatarik gipuzkoarrek eta bizkaitarrek bazekiten elkar hartzen. Horren adibide da, noski, Flandesko Brujasen kontsulatua, eraikin propio eta guzti, sortu izana¹⁸. Oraindik ere hantxe dago hiri horretan “Bizkaitarren plaza”.

Gipuzkoan hiribildu zaharrena Donostiakoa dugu. Antso *Jakitunak* eman zion Jacako forua, eta azken aldiko indusketetan Santa Teresa komentuan, Santa Maria elizaren atzeko aldean, itsatsita dagoen hilerrian XII. mendeko giza hezurak azaldu ziren. Disko itxurako hiru hilarri ere bai; halaber XIV. mendean eraikitako harresiaren hondakinak³⁷.

Gipuzkoako hiribilduek “Gipuzkoako Merindadea” osatu zuten 1356. urte inguruan. Hemeretzi

merindadek osatzen zuten “Gaztelako Merindade Nagusia”, eta Gipuzkoaz gain beste hamazortziak hauek ziren: Cerrato, Infantazgo, Camposko Monzon, Carrion, Villadiego, Aguilar de Campoo, Liebana-Pernia, Saldaña, Asturias de Santillana, Castrojeriz, Candemuño, Burgos-Ubierna, Gaztela Zaharra, Silosko Santo Domingo, Bureba, Errioxa-Okamendieta (Montes de Oca), Logroño eta Ebroz bestaldekoa.

Merio nagusiak aginpidea Gipuzkoan hiribilduek hartu gabeko lurretan zuen, eta gero Saiaz, A iztondo eta Aleriako alkatetza nagusietan. “Erregearen mendietan” agintzen zuen. 1371. urteaz gero Gipuzkoako merio nagusiak Aiara etxeak izan ziren. Epaitegien eta militarren arloan zituen zereginak.

Aztertzen ari garen denboraldian Gipuzkoan izandako merio nagusiak hauek dira: Beltran Ibañez Gebarakoa (1304, 1328, 1332), Diego Lopez Salzedokoa (1309), Gomez Carrillo (1315), Don Juan errege-kaperaua, bere ordezkoi Joan Santxez Salzedokoa eta Joan Martinez Baldakoa (1317, 1318, 1319), Joan Santxez Marroquin Salzedokoa (1322), Pero Lopez Aiarakoa (1331), Ladron Gebara (1335, 1337-1340, 1343) Lope Diaz Rojaskoa (1341, 1345, 1349, 1351-1353, 1361), Beltran Belez Gebarakoa (1344), Joan Beltran Gebara (1350), Beltran Gebara (1359, 1368, 1370), Pedro Manrique (1366), Rui Diaz Rojaskoa (1372-1378) eta Pero Lopez Aiarakoa.

Gipuzkoan 1368an Gartzia Martinez Elduaiengoa izan zen Alkate Nagusi. Halaber, erregeak Gipuzkoarako izendatutako lehen korrejidoreak ere garai horretakoak dira. Gartzia Perez Camargokoa izan zen 1375ean, eta Pero Lopez Aiarakoa 1379an³³.

5.3.2. Gipuzkoa erreinu artean

1302. urtean gosetea eta izurritea izan ziren, eta gaitzak Gaztelako Fernando IV.a erregea eta haren ama kutsatu zituen²³.

Nafarroan 1305ean, Joana I.a erregina hil zenean, gorabehera batzuen ondoren Luis I.a *Setatiak* hartu

zuen bere gain tronua 1307an. Konfiantzazko pertsonak ipini zituen kargu handietan, eta hainbat jaun preso hartu zuen. Gobernadore atzerritarrek agindu zuten Nafarroan hurrengo urteetan, zanpaketa ugari eginez. 1314an Felipe *Ederra* aita hil zenean, Luis Nafarroako eta Frantziako errege izan zen. 1316an hil zen, ordea, Felipe *Ederra*. Oso denbora laburrean izan zen errege Joan I.a *Hilondokoa*, zeren jaio eta laster 1316an bertan hil baitzen. Felipe II.a *Luzea* izan zen errege 1316-1322 bitartean. Karlos I.a *Buru-soila* anaiak (Frantziako Karlos IV.a *Ederrak*) hartu zion txanda 1322-1328 denboraldirako. Biek ere gobernadoreak izendatuta gidatu zituzten Nafarroako arazoak³. Felipe III.a *Prestua*, Evreuxkoa, izan zen Nafarroako hurrengo erregea. Orduan banandu ziren Frantziako eta Nafarroako erreinuak, handik aurrera bakoitzak bere erregea izango zuelako. Joana II.a erreginarekin batera, 1329tik 1343an hil zen arte izan zen Felipe III.a Nafarroako errege, eta emaztea 1349an hil zen arte izan zen erregina³⁸.



5.12. irudia. Getariako kale bat.

Bitarte horretan, 1327-I-2an, Gaztelako Alfontso XI.ak Getariari pribilegioa eman zion Sevillako portuan zergak arinduz. Getariarrek jakinarazi ziotenez, Nafarroarekin eta Ingalaterrarekin (Gaskoniagatik) mugan zeuden, eta nafarrak frantsesekin Tolosari eraso egitera etorri zirenean Getariari ere eraso egin nahi izan zioten. Urte horretantxe, uztailaren 9an,

azalera, bolumena eta pisua neurtzeko unitateak herri guztietan ez ziren berdinak, nahiz eta izen bera eduki³⁹.

1336. urtean Lope Gartzia Lazkanokoak gidaturik, oñaztarrek eta Gipuzkoako Ermandadekoek ustekabean Ausako gaztelua (Nafarroarena) hartu egin



5.13. irudia. Ausa-Gaztelu Abaltzisketa eta Zaldibiko mugan.

Gaztelako Fernando de la Cerdaren (Alfontso X.a *Jakitunaren* semearen) Alfontso seme eta printzeak onartu egin zuen Nafarroak Gipuzkoa, Araba eta Errioxa bereganatzeko eskubidea zuela¹⁴.

1330. urtean Nafarroako Forua hobetu egin zuten. XIII. mendeko Antzinako Foruari Lizarran, Iruñean eta abarren zeuden zenbait xedapen gehitu egin zioten. Felipe erregearen “Foru Hobekuntza” deitutakoa onartu zuten Iruñean³⁸.

1333. urtean Nafarroan inork ez zezakeen erregeak ezarritakotik kanpoko neurriak erabili. Nafarroan indarrean zeuden pisu eta neurriak erregeak ipintzen zituen etxe berezietan edo zigilatuta. Izan ere, luzera,

zuten. Ataungoa (Nafarroakoa hau ere), berriz, setiatu egin zuten. Orduan, Ausako gazteluko Pedro Ladron Gebarakoa alkaideari Nafarroan zituen ondasunak konfiskatu egin zizkion gobernadoreak³⁸.

1339. urtean Frantzia eta Ingalaterraren arteko Ehun Urteko gerrari hasiera eman zioten⁴.

1340. urtean, berriz, Gaztelako eta Portugalgo tropei laguntzen Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta abarretako soldaduak ibili ziren Cadizko Salado ibaiaren ondoan, Marokoko benimerinen eta Granadako musulmanen aurka. Kristauek irabazi zuten bataila 1340ko urriaren amaieran. 1342. urtean, berriz, Algeciras setiatzen ere ibili ziren gipuzkoarrak, eta 1344ko

martxoaren 27an egin ziren kristauak hiri haren jabe. 1350. urtean Gibraltar hartzen saiatu ziren, baina ezin izan zuten bereganatu²³.

1343an Gaztelako Alfontso XI.ari mairuen aurka laguntzera joan zitzaion Nafarroako Felipe erregea. Han gaixotu eta Jerezen hil zen³⁸. Gaztelako Alfontso XI.a ere 1349an hil zen izurrite beltzak jota, baina 1348an Gibraltarko itsasarteko bidea libre edukitzea lortu zuen³³.

1349. urtean, Nafarroako Joana II.a ama hil zenean, Karlos II.a semea, batzuek *Gaiztoa* deitua, altxatu zuten Nafarroako errege. 1387. urtera arte luzatu zen haren agintaldia. Gipuzkoako jaun batzuk (Lazkao, Oñatz eta Berastegikoak) basailu izan zituen Nafarroako Karlos II.ak. Horrela Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko mugan lapurreta gutxiago izan zen. Gaztelako Pedro I.a erregearen alde azaldu zen.

1351. urtean Frantzia ingelesen aurka borrokatu zen. 1354. urtean Mantesen (Paris ondoan) Nafarroako errege Karlos II.ak bere aldeko ituna lortu zuen. Normandian eta Parisen zebilen orduan. Gero Avignonera joan eta handik Iruñera itzuli zen.

1355. urtean Hondarribiko itsasontziak eta Nafarroako tropak Baionatik atera ziren Normandiara. Ingalaterrako Eduardo III.a erregearen armadarekin elkartuko zen han. Orduan bereganatu zituen Karlos erregeak Normandian zituen plazak.

1356. urtean Frantziako Joan erregeak Nafarroako Karlos II.a preso hartu zuen Rouenen, baina, Nafarroako erregearen lagunek egindako lanaren ondorioz, 1357an askatu egin zuten. 1358. urtean Karlos II.a Parisa iritsi zen. Ingalaterrarekin elkarturik zebilen, Frantziako tronua bereganatu asmoz. 1360. urtean lehen Normandian zituen lurraldeak bereganatu egin zituen. 1361ean, berriz, Nafarroara itzuli zen.

Bitartean Enrike Trastamarakoak porrot egin zuen 1360ko apirillean Naiaran anaiordea zuen Gaztelako errege Pedro I.a *Ankerraren* aurkako gerran. Pedro

I.ak eta Karlos II.ak ituna egin zuten 1362an elkarri laguntzeko. Hurrengo urtean, ordea, Aragoiko Pedro IV.arekin egin zuen ituna Karlos II.ak, Gaztela eta Leongo erreinuen aurka. Gero, 1364an, berriz Gaztelako Pedro I.arekin elkartu zen. 1366. urtean, Aragoi Enrike Trastamarakoarekin elkartuta, Gaztela eta Nafarroaren aurka gerran hasi ziren. Kalagorri zegoela, Enrike II.a Trastamarakoak Gaztelako errege izendatu zuen bere burua, baina Gipuzkoako hiribildu batzuek, Soriak, Logroñok eta abarrek aurka jarraitu zuten.

Pedro I.a *Ankerra* Portugal eta Galiziatik Gaskoniara iritsi zen. Baionatik Bordelera joan zen³⁸. Bordelera ondoko Libourne hirian, 1366ko irailaren 23an, Gaztelako Pedro I.a errege izanak, Galesko Printzeak eta Nafarroko Karlos II.a erregeak ituna sinatu zuten. Nafarroak, besteak beste, Gipuzkoa eta Araba, Nafarroa, Logroño, Kalagorri, Alfaro eta Fitero bereganatuko zituen. Nafarroakoak izandako Trebiñu, Naiara, Haro, Briones, Labastida eta beste zenbait herri ere bereganatuko zituen, Galesko Printzeak baiezkota eman zuten plaza horietako agintariei Nafarroako Karlos II.ari obedi ziezaioten. Itun hura, ordea, isilpean gorde behar zen Gaztelako Pedro I.ak Burgos bereganatu arte. Galesko Printzeak, berriz, Bizkaia bereganatuko zuen, Bilbo, Bermeo, Lekeitio eta Castro Urdialesko portu eta guzti¹⁴.

Gero, Arabako Kanpezun Nafarroako Karlos II.a eta Gaztelako Enrike II.a elkarrizketatuta, beste itun bat egin zuten. Orduan Karlos II.ak Logroño okupatu zuen. 1367ko otsailean Galesko Printzearen ("Printze Beltza" esaten zioten, armadura beltza erabiltzen zuelako) tropak, Karlos II.a eta Gaztelako Pedro I.a, Pirinioak zeharkatuta, Iruñera heldu ziren. Tropak Ebro ibarrera eta Errioxara helduta, Naiara ondoan batailan Enrike II.ak ihes egin zuen Pedro Luna jaunaren (gero Benedikto XIII.a aita santua izango zenaren) laguntzaz.

Enrike II.a, ordea, irailean berriz ere Kalagorri zuten, eta Gaztelan berriz ere gerra zibila piztu zen.

1368an Gaztelako hiriek errege bataren ala bestearen aldeko jarrera hartu zuten. Anaia arteko gerran, 1369-III-23an Montielgo (Ciudad Real) lurretan Pedro I.a erregea hil egin zuten.

Urte hartan Karlos II.a Normandian zen. Frantziako erregearekin zituen arazo batzuk konponduta, 1372an itzuli zen Nafarroara³⁸, baina urtebete lehena-go, 1371n, Bizkaiko jaurerria Gaztelako koroari lotu zitzaion herentzia bidez⁴.

Nafarroako erregea Normandian zen bitartean, Gaztelako Enrike II.a Gasteiz bereganatzen saiatu zen, baina ez zuen helburua lortu. Beltran Gebarak, berriz, Nafarroako erregearen alde ibilia zen arren, Enrike II.arentzat jardun zuen aurrerantzean. Rui Diaz Rojaskoa Gipuzkoako merio nagusiarekin bat eginda, Arabako Agurain eta Kanpezu Gaztelako erregearentzat hartu zituen. 1373an Bolognako Guido kardinalaren arbitrajearen bidez Errioxako San Vicente de la Sonsierra, Guardia eta Buradon Nafarroarentzat geratu ziren, eta Logroño, Gasteiz eta Agurain Gaztelarentzat.

1374ko martxoan Gaztela eta Leongo Enrike II.a erregeak armada handia bilduta Baiona setiatu egin zuen ekainean. Tropa batzuk Orreagatik eta beste batzuk zuzenean Gipuzkoatik igaro ziren Baionara, baina Anjouko dukea ez zen etorri Gaztelako tropei laguntzera, eta hauek setioa bertan behera utzi zuten³⁸. Gipuzkoatik igaro ziren tropek, ordea, Tolosan eta Seguran kalteak eragin zituzten, eta Enrike II.a erregeak zergak arindu egin zizkien⁹. Baita Mutriku, Getaria eta Donostiari ere, hauek izan zituzten kalteengatik. Esan beharra dago Baiona hartu ez bazuten ere, Donibane Lohizune erre eta arpilatu egin zutela. Itsasoko flota Sevillatik etorritako zortzi galearak eta Gipuzkoako hainbat itsasontzik osatuta zegoen⁴⁰. Espedizioa 1374ko ekainean izan zen²³.

1378ko uztailaren 19an Gaztelak bidalitako itsasontziak Britainiako Saint Malo-ra iritsi ziren, Normandiako kostaldea nafar eta ingelesengandik defendatzeko asmoz. Urte hartan bertan Gaztelako tropek Nafarroa inbaditu zuten. Iruñea setiatzera iritsi ziren, eta Karlos II.ak ingelesei laguntza eskatu zien. Orduan erretiratu egin ziren inbaditzaileak. Dena den,



5.14. irudia. Segurako Oxina portalea.

1379an Nafarroako Karlos II.ak Errioxako Brionesen ituna sinatu zuen, Gaztelako erregeak ezarritako baldintzak onartuz³⁸. Bi urte haietan Gaztelako Enrike II.aren armadan Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako soldaduak ibili ziren²³.

1378. urtean, bestalde, Mendebaldeko Zisma Handiaren hasiera izan zen. Bi Aita Santu finkatu ziren, bata Avignonen (Okzitanian) eta bestea Erroman⁴¹.

1379. urtean, halaber, Bizkaiko jaurreriaren titulartasuna Gaztelako erregearengana (Joan I.a erregearengana) pasatu zen⁴.

Aipatutako erreinuetako demografiari dagokionez, XIV. mendearen hasieraz gero goseteak izan ziren (1301ean, 1343an eta 1370ean bai behintzat). Izurriteak ere ugari ziren. 1348an Iberiar penintsulara iritsita, 1350. urte inguruan eraso zuen izurrite beltzak, baina 1363-1366, 1374 eta 1380an ere izan ziren beste joaldi batzuk³³. XIV. mendearen lehen erdian euriteak ere izan zituzten, eta, ondorioz, uzta kaskarra besterik ez zuten izan. Biztanleriak, beraz, ez zuen gora egin XIV. mendean. Gainera klima hoztu egin zen 1333-1335. urteez gero¹⁸. Zenbait lurraldetako ikerketa demografikoek argi eta garbi erakusten dute zein giro latzean bizi izan ziren. Nafarroako Lizarrako merindadeko datuak, adibidez, oso esanguratsuak dira. Batez beste populazioa erdira jaitsi zela esan daiteke⁴². Beraz, itsasoaren mailak behera egin zuen, eta ibaietan nabigatzeko arazoak sortzen hasi ziren. Hurrengo bi mendeetan Zestoan ere izan zituzten auziak ibaietako nabigazioa zaildu egin zelako eta lehen ez zeuden lekuetan presak egiten hasi zirelako. Itsasotik ontziak ibaian gora noraino iristen ziren jakitea komeni da. “Chronographus anni 354” deitutako agiriak dioenez, beroaldian euskal portuak, ibaian gora joanda, hauek ziren: Atturri ibaian Aire, itsasotik 115 kilometro gorago; Errobi ibaian Senpere, 14 kilometro gorago; Bidasoa ibaian Berako Montoia portua, 10 km gorago; Oiartzun ibaian Errearteria, 2 km. gorago; Urumea ibaian Hernaniko Portua, 7 kilometro gorago; Oria ibaian Usurbil (ontziolak zeuden), 15 km gorago; Urolan Zestoa, 10 bat km gora-

go, eta Deba ibaian Altzola, 10 km gorago⁴³. Oria ibaian, XVIII. mendearen amaiera arte, ontziak Andoaineraino iristen ziren. Erdi Aroan Zestoan nabigazioa noraino iristen zen erabakitzea ez da arazo erraza. Txiriboga alderaino edo Iraetaraino agian. Hortik gora txalupak nekez joan zitezkeela iruditzen zaigu.

5.3.3. Ahaide Nagusiak

Euskal Herrian XIV. mendean eta hurrengoan “Bando-gerrak” izan ziren, Ahaide Nagusien artean. XIV. mendean gizarteko harremanak familia zabalaren artean bideratzen zituzten. Familia horietara sasiko seme-alabak ere biltzen ziren. Familia haiek gizarteko talde handiagoetan, leinutan, elkartzen ziren odol-loturaz. Pertsonak elkarren arteko mendekotasunaz komunitate zabalagoa osatzen zuten.

Leinuaren buru Ahaide Nagusia zen, familiaren ondasunak zaintzen zituena eta leinuko kideez arduratzen zena. Leinuaren sorburu izandako oinetxearen jabea zen. Hortaz, pribilegioa, lur eta errenta handienak zituen Ahaide Nagusiak. Horrez gain, merkataritza eta industria ere bazituen diru-sarrerak. Gainera bere soldaduak zituen, eta erregeari militarki egindako zerbitzuengatik erreinuko zenbait kargu ere izaten zuten⁴. XIV. mendean “oinetxe” edo “jauregi” esandakoari hurrengo mendean “dorre” esaten zioten⁴⁴.

Bandoak zenbait leinu elkartuta sortu zituzten. Euskal Herrian bando ezagunenak hauek ziren: oñaztarrak, ganboatarrak, agaramontarrak eta beaumontarrak. Oñaztarrak ganboatarren aurka ibili ziren, eta agaramontarrak beaumontarren kontra, “gehien balio zuena” nor zen erakustearren. Lehen bi bandoek Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan jardun zuten batez ere, eta azken biek Nafarroako erreinuan. Pertsona edo taldea Ahaide Nagusiaren mendean jartzeko zenbait mekanismoz egoen. “Tregoatans artzea” edo “gomen-dioa” ziren ezagunenak. Bietan eskaintzen zuen babesa Ahaide Nagusiak. “Tregoatan sartuta” zeudenek eskatutako bakoitzean gerran zerbitzatu egin behar zuten. “Gomendioan” sartutakoek, berriz, dirua



5.15. irudia. Azpeitiko Oñatzaundi edo Jaundegi etxea.

ordaindu edo zenbait lan egin behar zioten Ahaide Nagusiari. Bandoetara biltzen ziren, halaber, zokoratuak, lapurrak, eskaleak, etab. Haiek denak, Ahaide Nagusien babesean, espediziotan erabiltzen zituzten.

Ahaide Nagusiaren “balioa” ausardia, adore, ohore eta abarrez neurtzen zen maila sinbolikoan, baina maila materiala zeuzkan errenten bidez neurtzen zitzaion. XIV. mendearen hasieran, ordea, gosete eta izurriteen bidez krisi sakona zegoen Europako mendebalde osoan. Biztanleria murriztu egin zen, Iberiar penintsulako birkonkista geratuta zegoen, eta hiribilduak gero eta ugariago ziren (beraz, hango biztanleak erregearen babespean zeuden, eta ez Ahaide Nagusien mendean). Ahaide Nagusiak, beren errenta-mailari eusteko, elkarren aurkako gerran hasi ziren. Trastamaratarrei Gaztela eta Leongo tronua hartzen lagunduta mesedeak jaso zituzten, eta hiribilduetan finkatu ziren merkatarizatik eta udaleko karguetatik diru-sarrerak lortzearen. Ondasunak jaraunspenez

pasatzeko maiorazkoa ezarri zuten (ondasun guztiak maiorazkoan bildu eta ez zeukaten saltzerik edo zatitzerik)⁴.

Gipuzkoako leinuei buruz ari dela, Lope Garcia de Salazar kronikariak Azkoitiko Baldakoa “ahaide eta errentatan boteretsua” zela zioen, eta Iraetakoa “arraizoizko errenta ona zuena”. Ganboako bandokoak ziren jaun hauek: Elgoibarko Olasokoa, Azkoitiko Baldakoa, Zestoako Iraetakoa, Usurbilgo Atxagakoa, Zarauzko Zarautz etxekoa eta Oiartzungo Ugartekoa. Kostaldean, Deba eta Oria ibaien behe-arroetan finkaturik zeuden, beraz. Oñaztarrak honako jaun hauek ziren: Lazkaokoa (Gipuzkoan errenta handienak zituen), Amezketakoa, Berastegikoa eta Igartzakoa (Beasain) Nafarroako mugaren ondoan; Altzagakoa (Hernani), Leizaurkoa (Andoain), Murgiakoa (Astigarraga) eta San Miliangoa (Zizurkil) Donostia inguruan; Loiolakoa eta Enparangoa Azpeitian; eta Untzuetakoa (Eibar) Bizkaiko mugan³⁴.

Beltran Ibañez Oñatikoa ganboatarra Gaztelako Gortean noble gisa azaltzen da 1302. urtean, Burgo- sen, adibidez, erregearen agiriak sendotzen¹². Arrasaten, ordea, erregeak hiribilduko biztanleen alde egin zuen 1304. urtean, eta Oñatiko jauna Leintz bailarako- koen buru zela hiribilduko aurka atera zen²⁸. 1305ean Beltran Ibañez Oñatikoak Gaztelako Fernando IV.a erregearekin trukea egin zuen. Erregeak Gipuzkoako Oxirondo (Bergara), Uzarraga (Antzuola), Arriaran (Beasain), Soreasu (Azpeitia) eta Zarauzko monasterioak utzi zizkion, eta Beltranek trukean Araban zituen nekazari-morroiak eman ziz- kion erregeari⁴⁵.



5.16. irudia. Oñatiko Zumeltzegi dorreko gebaratarren armarrria.

1317. urtean Joan Martinez Oñazkoak Azkoitiko Joan Martinez Baldakoa eta honen semea hil egin zituen. Baldako etxea ere suntsitu zuen³⁴. 1319. urtean, berriz, Gaztelako Alfontso XI.a erregeak Gipuzkoarako zuen Joan Santxez Salzedokoa justizia-gizonak eta Gartzia Martinez Mirandakoa alkateak Azkoitiko biztanleak hilketa haietan eta Baldako Santa Maria monasterioa zein etxeak erretzean errurik ez zutela erabaki zuten, beharrezko ikerketak egin ondoren¹⁴.

Gipuzkoako beste leinu famatu bat Artazubiaga deiturakoa da. Leintz bailarako Bedoñakoa (Arrasateko auzokoa) da jatorriz, eta Bañez Artazubiagako- ak Arrasateko hiribilduan finkatu ziren. Diotenez, 1320. urteko hamarkadan Joan Bañez jaunak gebaratarren mende ez egotearren bizileku zuen Bedoñako dorreari, Artazubiaga oinetxeari, su eman zion, eta Arrasateko hiribilduan (erregearen mendekoan) fin- katu zen²⁸. Ez da ahaztu behar deitura horretako familia Zestoa ere bazela geroago, XV. eta XVI. mendeetan.

1321. urtean Ahaide Nagusi gipuzkoar batzuek beren tropekin Nafarroako Gorritiko gaztelua hartu zuten. Orduan Nafarroako gobernadore Pons Mortagnekoak zigor-espeditzioa antolatu zuen Martin Oibar tropen buru zela. Gorritiko gaztelua berreskuratu eta Gipuzkoara sartu ziren, baina Tolosa aldeko Beotibarko batailan nafarrek porrot egin zuten³⁴. Kanta ere egin zioten bataila hartan gertatukoari: “Mila vrte ygarota / Vra vere videan. / Guipuzcoarroc sartu dira / Gazteluco echean, / Nafarroquin batu dira / Beotibarre pelean”⁴⁶. Bataila hartan, besteak beste, Gil Lopez Oñazkoak eta Joan Perez Loiolakoak (hau bere bost anaiak lagun zituela) parte hartu zuten⁴⁷.

Beotibarko batailan, 1321-IX-19an, izandako galeren ondorioz, Iruñea, Lizarra, Zangoza, Urantzia, Gares, Orreaga, Atarrabia, Erriberri eta Larraso- añako herriek Nafarroako Pons Mortagne gobernadorearen aurka auzia hasi zuten. Epaia Erriberrin eman zuen Karlos I.a Nafarroako erregeak 1323-VII-24an³⁴.

Donostiako San Telmo Museoa Zestoako Lili etxekeoa girietanb adaX IX.m endekob at,e tab ertan dioenez,1 326.u rtei nguruanM artinD iazL ilikoab ertako etxe, burdinola, errota eta baserrien jabe zen⁴⁸. Ez zaigu iruditzen albiste fidagarria denik, zeren eta geroagoko agirietan, 1404-XII-19koan, esaten baita Martin Diaz Lilin bizi dela (ikus [XV. m. 1] agiria).

Gipuzkoako jauntxoek tropak geroago ere, 1330. urtean, sartu ziren Nafarroako Burundara eta Arana-tzera, eta Nafarroako Felipe III.a Evreuxkoa erregeak neurriak hartu behar izan zituen³⁴. 1330. urtean nafarrek Lazkaokoen dorreari eraso zioten, Beltran Ibañez Gebarakoaren laguntzaz. Hura Oñatiko jauna eta Gipuzkoako merio nagusia zen orduan. Lazkanotarrak eta oñaztarrak ziren zigorren helburu³⁴. Urte berean Iruñeko merioak Gil Lopez Oñazkoarena (hau da, Beotibarko batailan protagonista izandakoarena) zen Larreako dorretxeari eraso zion³². 1332. urtean ere nafarrek eta gebaratarraren tropek garaitu egin zituzten oñaztarrak, Hernanin setiatuta eduki ondoren. Beltran I.a Ibañez Gebarakoa 1333. urtean hil zen. 1335. urtean, ordea, oñaztarrek eta lazkanotarrek Nafarroakoak ziren Ausa eta Ataungo gazteluei eraso egin zieten Lope Gartzia Muruakoaren (Lazkaoko jaunaren) agindupean. Ataungo gaztelua hartu eta gero utzi egin zuten. Pedro Ladron Gebarakoa zen Ausako gaztelua zaintzeko Nafarroako erregeak izendatua, eta 1335 eta 1336an ondasunak bahitu egin zizkieten Nafarroan Ausa gaztelua galdu egin zuelako³⁴.

Urte batzuk lehenago, 1332. urtean, Arabako Kofradiak, Batzarrak Arriagako landetan (Gasteiztik gertu, gero egindako San Joango ermita dagoen lekuan) egiten zituenak, Gaztelako Alfontso XI.a erregeari eskabide hau egin zion: Arabako lurra bere gain har zezala eta gobernatzeko forua eman ziezaiola. Erregeak onartu egin zuen Arabako Kofradiaren eskaintza, eta harrezkero erregeak bere ordezkarien bidez gobernatu zuen lurraldea. Ordura arte Kofradiakoek jaun bat hautatzen zuten, justizia bidera zezan, zergak jaso zitzaizkan eta lurraldea defenda zezan. Batzuetan bertako jaunaren bat aukeratzen zuten, edo Gaztelako infanteren bat. Orduan, ordea, Gaztelako

Alfontso XI.a erregeari eskaini zioten⁴⁰. Erregea bera etorri zen Burgostik Gasteiza, eta zenbait baldintza zuen agiria sinatu zuten. Sinatzaileetako bat Beltran I.a Ibañez Gebarakoa zen, ganboatarren burua eta Oñatiko jauna. Sinatzaile izan ziren, halaber, Ladron II.a Belez Gebarakoa semea, Lope Mendozakoa Lau-dioko jauna eta Rui Lopez Mendozakoa semea (oñaztarrak), Joan eta Diego Hurtado Mendozakoa anaiak, Fernan Perez Aiarakoa, etab.⁴⁹.

Lehentxeago aipatu dugun Ladron II.a Belez Gebarakoa Gipuzkoako merio nagusi izan zen 1335-1337 eta 1340. urteetan¹². Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko mugan, berriz, lapurretak noiznahi izaten ziren. 1339. urtean, adibidez, Joan Lopez Larreakoak (Amasako larreatarretakoak) bere lagunekin Gorritin abereak lapurtu eta Gipuzkoara eraman zituen. 1344. urtean, bestalde, Nafarroako Mendialdeko merioak, Joan Perez Anizkoak, Diego Ortiz Larreakoa kapitain gipuzkoarra jazarri zuen Anizlarreako basoan, Goizueta eta Arano artean. Urte berean Lope Gartzia Lazkanokoarekin eta beste zenbait gipuzkoarrekin Lizarrako merioak elkarrizketak izan zituen lapurretan auziak konpontzearen³⁴.

Ladron II.a Belez Gebarakoa Algecirasen hil egin zen 1342. urtean. Anaia Beltran III.a Belez Gebarakoa izan zen oinordekoa, eta Gipuzkoako merio nagusi izan zen 1344. eta 1345. urteetan. Laster, 1350. urtean, Gaztelako Alfontso XI.a erregea hil egin zen, baina Pedro I.a seme eta oinordekoa oso gaixotu zen. Orduan bi talde nagusi egin ziren. Bata Aragoiko Fernando infantearen aldekoa zen, eta bestea Nuño Larakoaren aldekoa. Oñatiko jaunak, Beltran III.ak, aukera egin behar izan zuen, baina ez zuen, ez bata eta ez bestea hautatu, Nafarroako erregea baizik. Nafarroako Karlos II.a erregearen basailu egin zen 1351n. Nafarraren basailu izan arren, Gaztelako erregeari ez zion aurka egingo¹².

Urtebete lehenago, 1350. urtean, Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko mugako jaun oñaztarrak Nafarroako erregearen zerbitzura hasi ziren lanean. Hauek ziren haietako jaun batzuk: Lope Gartzia Muruakoa



5.17. irudia. Oñati.
Gebaratarren Zumeltzegi
dorrea.

(Lazkaoko jauna), Martin Lopez Muruakoa, Martin Gil Oñazkoa (Larreko jauna) eta Otxoa Martinez Berastegikoa. Gipuzkoako beste zenbait ezkutari ere mertzenario gisa ibili zen Nafarroako Karlos II.aren armadan. Frantzia aldean ibili ziren 1351n, 1353an, 1359an eta 1364an. Aragoiren aurka ere ibili ziren, Nafarroaren alde, 1362an eta 1363an.

Bost urte geroago, 1368an, Nafarroako Karlos II.a Gipuzkoa bereganatzekotan zen, Libourneko itunean Gaztelako Pedro I.ak eman ziolako. Karlos II.ak orduan bere alde zituen Oiartzungo Aiero Ugartekoa, Oñatiko jauna, Pedro Lopez Muruakoa (Amezketako

jauna), eta Berastegi, San Milian eta abarreko jaunak. Lazkaoko jaunak ez zion Nafarroako erregeari lagundu. 1369an Gaztelako tronua Enrike II.a Trastamara-koak bereganatu zuenean, ordea, Oñatiko Beltran III.a Belez Gebarakoak errege nafarrari traizio egin zion, Aguraina sartu eta Gaztelarentzat hartu zuelako³⁴. Hurrengo urtean, 1370.ean, Gaztelako Enrike II.ak ordain gisa Leintz bailarako jaun izendatu zuen, eta bertako gatzagetako zergak zein Arrasateko eskribautzako zergak jasotzeko eskubidea eman zion³². Oiartzungo Aiero Ugartekoa eta Amezketako jauna (Lapurdikoa Senperera ezkondu zena) leial jarraitu zitzaizkion gero ere Nafarroako erregeari³⁴.

Beltran III.a Belez Gebarakoa Mentzia Gartzia Aiarakoarekin ezkondu zen, eta emaztearekin zortzi seme-alaba izan zituen. Hirugarrena Karlos Gebara izan zen, Nafarroako Karlos II.a erregea aitaponteko izan zuena. Horiez gain Beltran III.a Oñatiko jaunak beste bi seme-alaba izan zituen ezkontzatik kanpo: Joan Beltran Gebara eta Konstantza Gebara. Lehena Beltran jaunak Ines Lazarraga oñatiarrarekin izan zuen, Joan Ibañez Lazarragakoaren alaba ezkongabearekin. Joan Beltran Gebara sasiko semea, gero, Zestoako Altzolaratsera ezkondu zen, Maria Beltran Iraetaren etxera¹².

Pribilegioak eta eskubideak berronestea eskatu zioten ordezkariak merioari, eta ordena publikoa ezartzeko neurriak hartzea ere bai. Oñaztarren eta ganboatarren buruzagiak aginduak betetzera eta fidatzaileak ematera gonbidatu zituen merio nagusiak⁹.

5.3.4. Ermandadeak eta Batzarrak

Ermandade izeneko elkarteak zenbait herritako pertsonak sortzen zituzten jakineko arazoren bat konpontzearen. Gaztelak eta Nafarroak mugako gaizkileen lapurreten arazoa zuten, eta Gasteizen bildu



5.18. irudia. Zestoako Altzolarasko jauregiaren aurriak.

1378. urtean Gipuzkoako giroa nahasia zen, Ahai-de Nagusien bandoen artean liskarrak noiznahi zudelako. Orduan Rui Diaz Rojaskoak, Gipuzkoako merio nagusiak, hiribilduetako eta herrietako ordezkariak Arrasaten bildu egin zituen apirilaren 29an.

ziren, 1301eko neguan edo 1302ko urtarrilean, bi erreinuetako ordezkariak. 1304an ere elkartu ziren berriz Iruñeko merioa eta Gipuzkoako merio nagusi zen Diego Lopez Salzedokoa. Bi urte geroago Diego Lopez Arbizukoa Gasteizkoekin, Asparrenako

Ermandadekoekin eta gipuzkoarrekin elkarriketatu zen bi erreinuen arteko muga segurtatzearen.

Aurreko mendearen amaiera aldera, 1296an, “Paduretako Ermandadea” sortua zen kostaldeko zenbait hiri eta Gasteizen artean, eta 1302. urtean Gaztelako Fernando IV.a erregeak bere agiria sinatuta sendotu egin zuen Ermandade hurra.

Gipuzkoan Lur zabalean (hiribilduen mende ez zeuden lurretan) bizi zirenek ere beren Ermandadea bazutela iradokitzen dute zenbait datuk. 1306an, adibidez, Joan Martinez Nekuesakoak hiribilduko (Segura eta Tolosako) eta “Gipuzkoako lur osoko” komunitateekin ituna egin behar zuen. 1309an ere Gipuzkoako Lur zabaleko komunitatekoek sinatu zuten bakea nafarrekin. 1316. urteko agiri batean Diego Santxez Garrizkoak, Nafarroako Mendialdeko merioak, gipuzkoar gaizkileei egindako jazarpena deskribatuz garbi dio Gipuzkoako Lur zabaleko biztanleek ermandade-alkateak eta Ordenantzak zituztela, Gaztelako erreinuko errege-merioa agintari gorena izanik. 1322. urtean Gipuzkoako Lur zabaleko ermandade-alkate ziren Martin Gartzia Markinakoa eta Martin Lopez Iartzakoa. 1328an Nafarroako agirietan bereizi egiten dira Gipuzkoako Lur zabaleko Ermandadea eta Arabakoa⁴⁰.

Gipuzkoarren eta nafarren artean 1329an bazen Mugako Ermandadea gaizkileen aurka indarrak elkartzeko. Argitu beharra dago Mugako Ermandadean Gipuzkoaren aldetik batez ere Lur zabaleko jende-

ak parte hartu zuela, hau da, hiribilduen agintaritzapean ez zegoenak. Hiribilduetakoak merindadean antolatuta zeuden. Bost urterako izango zen Mugako Ermandadea, agirian ziotenez.

1330. urtean Joan Gartzia Erretakoak, Iruñeko merioak, Gartzia Martinez Berastegikoa ezkutaria eta beste bederatzita lagun gaizkile preso hartu zituen. Tolosara eraman zituen denak, eta han Gipuzkoako justizia-gizonak ez zituen zigortu nahi izan. Iruñeko merioak Nafarroako bidea hartu zuen, baina Ermandadeetako epaileen eskariz berriz ere Tolosara itzuli zen. Geroago, Iruñeko merioa bere tropekin, Gipuzkoako justizia-gizonarekin eta Lazkano leinukoekin Gil Lopez Oñazkoarena zen Larrea etxea hartzera joan zen. Setiatuta eduki zuten dorrea.

Mugako Ermandadearen iraunaldia (bost urtekoa) 1334. urtean amaitu zen. Orduan 1336. urtera arte mugan gorabeherak izan ziren. Lope Gartzia Lazkanokoa bere soldaduekin Nafarroara sartu eta Ausako gaztelua hartu zuten. Ahaide Nagusiek kontrolaturiko Lur zabaletako komunitateek gerra egiten zuten Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko mugan. Horregatik, 1336an Gaztela eta Nafarroaren arteko Mugako Ermandadea berriz indarrean jarri zuten⁴⁰.

1339-II-6an Donostiak, Getariak eta Mutrikuk Ermandadea sortu zuten, beste edozein erreinuetako jendeak erasotzen bazieten elkarri laguntzeko asmoz¹⁴.



5.19. irudia. Mutrikuko portua.

1345. urtean Donezteben eta Lesakan Nafarroako Mendialdeko merioa Gipuzkoako merio nagusiarekin eta alkate nagusiarekin elkartu zen mugako arazoak konpontzearen⁴⁰.

1348. urtea garrantzitsua izan zen Gipuzkoako Merindade Nagusiaren historian. Merindadea aldika ari zen sortzen Gaztelako Alfontso X.a *Jakitunaz* gero, baina 1348an gutun juridikoa lortu zuen³².

1350. urtean Mugako Ermandadea eratu zuten berriro Nafarroako eta Gaztelako erreinuek, arazoak bideratzeko. Nafarroako Iguzkitzan, Arabako mugatik gertu dagoen Zuñiga herrian, Lizarrako merioaren bitartez Arabako eta Nafarroako Kontzejuek Ermandade-agiria sinatu eta alkateak izendatu zituzten.

1351. urtean Paduretako Ermandadeak ituna sinatu zuen Londresen (gero berriz Hondarribian 1353an) itsasontzi ingelesen eta Bizkaiko itsasoaren kostaldeko hiribildutakoen artean bakea izan zedin. Gipuzkoako Lur zabaleko Ermandadea ere indarrean zen 1362an, Gaztelako Pedro I.a erregearen agiri batean aipatzen denez⁴⁰.

1368an Nafarroako Karlos II.a erregeak alde zituen Gipuzkoako Ahaide Nagusietako asko, eta guztiak onartu zuten Karlos erregea Gipuzkoara sartzeari. Orduan Nafarroako eta Arabako hiribildu, herri eta ibarrak eta Gipuzkoako zenbait elkartu egin ziren Ermandadea sortzeko. Hura ez zen, ordea, Mugako Ermandadea, Nafarroako Ermandadea baizik, une hartan lurralde haiek nafartzat zeuzkatelako³². Gasteizen sinatu zen agiria 1369ko martxoaren 12an⁴⁰.

1370. urtean, Gaztelako gerra zibila amaitu ondoren, Medina del Campoko Gorteetan Ermandadeak sortzea agindu zuten. Gipuzkoan ere sortu zen Ermandadea, Gartzia Perez Camargokoaren, erregearen alkate nagusiaren, ardurapean. Orduan "Gipuzkoako Lurreko Hiribildu eta Alkatetzetako Ermandade Orokorra" sortu zen. Haren garapenaz eratuko zen gero Probintziako antolamendua. Ermandadeko Ordenantzetan garbi ikusten da helburua bidaiariak,

eta batez ere merkatariak eta haien gaiak, lapurrengandik babestea zela. Ermandadeko alkateak zazpi izango ziren. Bakoitzak bere barrutia izango zuen, baina Ermandadeko lurralde osoan eskumen arrunta ere izanik³³. Ermandadeko alkateez gain Gipuzkoako hiru Alkatetza Nagusietako hiru alkateak zeuden. Gipuzkoako lurralde osoa hartzen zuen Ermandade hura Gipuzkoako hiribildu eta tokietako prokuradoreen Batzarrak kontrolatzen zuen.

1371. urtean Zamorako Toro hiriko Gorteetan Paduretako Ermandadearen interesak ere zaindu ziren⁴⁰.

1373-IX-10ean Gaztelako Enrike II.ak Burgosen agiria sinatu zuen Gipuzkoako Ermandadearen, oñaztarren, Azpeitiko hiribilduaren eta Beltran III.a Belez Gebarakoaren auziak ebaztearen. Gipuzkoako merio nagusiari, Rui Diaz Rojaskoari, auziak epai zitzala agindu zion. Merio nagusiak epaia 1375-II-7an eman zuen Arrasaten, eta 1375-VIII-2an erregeak Burgosen aipatutako merioak emandako epaia berretsi egin zuen, bete zezaten. Aurrez, 1374an, Enrike II.a Tolosara etorri zen.

1375-XII-20an Gaztelako errege berak, Sevillan, Tolosan Ermandadean batzartutako Gipuzkoako hiribildu eta tokietako prokuradoreek aurkeztutako ordenantzen beste lau kapitulu onartu zituen. Ermandadeko alkateak zenbat izango ziren, nola hautatuko ziren, zer-nolako eskumenak izango zituzten, etab. arautzen zen⁹. Testua kontuan hartuta, esan daiteke Nafarroarekin Mugako Ermandadea berriz ere martxan jartzen zela eta Gipuzkoako lurralde osoko Ermandadea eratzten zela, baina bietan kontrola Gipuzkoako hiribildu eta tokietako prokuradoreen Batzarrak zuela⁴⁰.

1375. urtean, Gartzia Perez Camargokoak, aipatu bezala Tolosan hiribilduetako prokuradoreak bildu zituen, eta batzartutakoei erregeak Gipuzkoako lurralde osorako Ermandadea sortzea agindu zien. Ordenantzen arabera, Batzarrak alkateak kentzeko ahalmena zuen, baldin eta alkate haiek beren eginkizunak ongi betetzen ez bazituzten. Ermandadeko

alkateak Batzarrak hautatzen zituen, baina erregeak onetsi egin behar zituen. Egia jakinda, Ermandadeko alkateek epaiak eman zitzaizkien, eta haien aurka gora jotzerik ez zegoen. Bideetan zebiltzan merkatariei eta bidaiariei ezin zitzaizkien eskean joan, eskaleak lapurtzat hartu nahi ez bazituzten behintzat⁵⁰.

Adierazi beharra dago Rojas etxeokoa oñazarren aldekoak zirela, eta Gebara etxeokoa ganboatarrak. Gaztelako erregeak Gebara etxeokoa merio nagusi izendatzen zuenean, nafarrekin Mugako Ermandadea bultzatzen zuen oñazarren aurka, baina merio nagusia Rojas etxeokoa zenean, kontrakoa gertatzen zen. Bando arteko zatiketa hark hiribilduetako jarduera ere baldintzatzen zuen, eta horren adibide da 1378ko urtarrilaren 7an Tolosako herriak oñazarrekin ituna egin izana.

1378-IV-29an Arrasaten Ermandadeak Batzarra ospatu zuen Gipuzkoako merio nagusiaren (Rui Diaz Rojaskoaren) eta alkate nagusiaren (Joan Ordoñez Banuelloskoaren) gidaritzapean. Bertan Gipuzkoako hiribildu eta tokietako prokuradoreez gain Oñatz eta Ganboako bandoetako ezkutariak bildu ziren. Bata-sun geopolitikoa sortu zen, hiribilduak eta Lur zabala ordezkatuta zeudelako, baina interes desberdinak zeuden hiribilduetan eta Lur zabalean. Gainera, azken hau bandotan zatiturik zegoen⁴⁰.

Batzarra Leintz eta Bergarako artzapez zen Joan Santxez Laarruiakoaren etxeetan ospatu zuten. Ahaide Nagusien ordezkari joandako ezkutariak hauek ziren: Migel Lopez Lazkanokoa, Gilermo Lopez Lazkanokoa (anaia), Beltran Ibañez Loiolakoa, Pero Nuñez Enerizkoa, Joan Perez Amezketakoa (hauek oñazar-rrak) eta Joan Lopez Baldakoa (hau ganboatarra).

Batzarreko buru Joan Fernandez Cogolloskoa eta Lope Ibañez Barrantiakoa eskribauak izan ziren, eta haiek irakurri zituzten Gipuzkoako hiribildu eta lekuetako prokuradoreek jakinarazitako eskakizunak:

1. Erregeengandik jasotako pribilegio, askatasun, usadio eta ohitura onak gorde zitezela.

2. Merioak justizia ezar zezala erregearen zerbitzura.

3. Bidaiariak geldiarazten zituzten ezkutariak lapurtzat jo eta zigor zitezela.

4. Gaiztakeriak egindako ezkutariak babespean hartzen zituzten Ahaide Nagusiek ordain zezatela ezkutariak egindako kaltea.

5. Oñatz eta Ganboa bandoetako buruei eta ezkutari ibiltariak adierazitako gainerakoei jakinaraz ziezaietela jarraitzaileek egiten zituzten kalteengatik erantzule zirela.

6. Merio nagusiaren mendeko merioei agindua eman ziezaietela jabeen borondatearen aurka ganadurik edo beste gauzarik har ez zezaten.

7. Merio nagusiaren mendeko merioak haren ezkutari izan zitezela, eta ez beste inorenak.

8. Aurreko merioen ohiturari jarraituz, merindadeko Alkatetza Nagusietako hiru alkateak merioarekin eta erregearen alkatearekin joan zitezela leku bate-tik bestera jendeari entzutera eta auziak epaitzera.

Batzarreko prokuradoreek ziotenez, eskakizun haiek betetzen ez baziren erregearengana joko zuten, eta merio nagusiari kobratuko zizkieten eragiten ziren kalteak eta gastuak.

Merio nagusiak onartu egin zituen eskakizunak, eta Oñatz zein Ganboako bandokoei mehatxu egin zien haien kontra joango zela jakinarazita. Ahaide Nagusietako buruek hamabost eguneko epea eskatu zuten haien mendeko ezkutari eta morroien zerrenda osatu eta emateko.

Esan beharra dago 1378ko Batzarrean hiru urte lehenago sortutako Ermandadeko alkateen berririk ez dela ematen; izan ere, Alkatetza Nagusietako alkateak eta erregearen alkatea dira auziak epaitzen dituztenak⁵⁰.

1379-VIII-2an Donostian bildu zen Ermandadeko Batzarra Gipuzkoako merio nagusi zen Pero Lopez Aiarakoa (kronista eta idazle famatua) buru zela. Azken bi urteetan Donostiak Hernanirekin zituen auziak aipatu zituzten⁴⁰. Oñatz eta Ganboako Ahaide Nagusien treguetan sartzea debekatu egin zuten⁵¹.

Nafarroako erreinuko Felipe I.a izan zena), eta 1307. urteaz gero ordena desegin eta ondasunez jabetzeko neurriak hartu zituen. Salaketa egin zien, heretikoak eta sexu-gaietan moralikgabeak zirela eta. 1312. urtean Klemente aita santuak, haserrearen haserrez, ordena deuseztatu egin zuen. Kideei bizialdiko espe-



5.20. irudia. Hernaniko Kale Nagusia.

Hilabete geroago, irailaren 18an, Gaztelako Joan I.a erregeak Burgosen Enrike II.a erregeak lau kapituluatan onartutako Ermandade Koadernoko hobekuntza ontzat eman zuen⁹.

5.3.5. Tenplarioak

Tenplarioak (edo “tenpluko zaldunak”) Hugues Painskoak Jerusalemen 1119an sortutako ordena erlijioso-militarreko kideak ziren. Hasieran eginkizun nagusia erromesak musulmanen erasoetatik babestea zen, hau da, bide-zaintzaile ziren. San Bernardo Clairvauxkoa izan zen ordenaren bultzatzaile handiena, eta hark idatzi zuen ordenako erregela. Ondasun handiak zituzten eta bankari ere izan ziren, Aita Santu, errege eta noble askori dirua maileguz ematen zitelako.

Botere handiegia zutelako beldur zen Frantziako Felipe IV.a *Ederra* (aldi berean 1305. urtera arte

txe-zigorra ezarri eta batzuk, Jacques Molay maisu nagusia barne, sutan erre egin zituzten⁵².

Tenpluko kideen aurkako epaiketa Frantziako Chinnon-go (Indre-et-Loire) gazteluan egin zuten, eta oraindik orain argitaratu dira hango aktak. Epaiketa 1307ko urriaren 13an egin zen, eta Klemente V.a aita santuak Jacques Molay errugabetzeko eskaria egin zuen, baina Felipe *Ederrak* 1312an Vienneko (Isère) kontzilioan eskaria deuseztatzea lortu zuen. Ondorioz, 1314ko urriaren 18an tenplarioen arduradunak bizirik erre zituzten sutan⁵³.

Templeko ordenak erromesak eta erromesen bideak zaintzen zituen, eta Euskal Herrian ere baziren. Ordena desegin zenean, Erromak gomendioak eman zituen tenplarioen ondasunak Jerusalemgo San Joango ordenara pasa zitezten. Neurri handi batean agindu hori bete egin zen Aragoiko eta Nafarroako erreinuetan.

Portugalen eta Valentziako erreinetan beste ordena batzuk sortu ziren ondasun haiek hartzeko eta kudeatzeko. Aragoiko erregeak Valentziako “Montesa”ko ordena sortu zuen 1319an Valentziako erreinurako, eta haiek eskuratu zituzten lehen tenplarioenak izandako ondasunak. Portugalen “Kristoren Ordena” sortu zuen erregeak, eta tenplarioen ondasunak ordena berriak erabili zituen.

Gaztelan, dena den, Fernando IV.a erregeak bereganatu egin zituen tenplarioen ondasunak. Erregeak beretzat hartu eta batzuk noblei nahierara eman edo saldu zizkien⁵². Gaztelako erreinuan ordenaren azken urteetan haiek izan ziren maisu: Gonzalo Yañez (edo Ibañez) (1289-1299) eta Rodrigo Yañez (edo Ibañez) (1299-1312)⁵⁴.

Templeko ordenak Nafarroan ondasunak zeuzkan Erribera aldean, Fontellasen eta Ribaforadan⁵⁵. Nafarroan tenplarioen aurkako jazarpena Luis I.a *Setatia*

erregeak agindu zuen 1307an. Erriberan ezezik, tenplarioek Garesen, Bargotan, Aberinen eta abarren zituzten ondasunak. 1312an Klemente V.a aita santuak ordena deuseztatu zuenean, Iruñeko apezpikuak, Orreagako prioreak eta Tuterako deanak tenplarioen ondasunak Jerusalemgo San Joango ordenaren esku utzi zituzten.

Tenplarioek Nafarroan zituzten etxe eta gomendio guztien berririk ez dago, baina badira batzuk ustez haienak izan zirenak eta tenplearenak ez zirenak. Honako hauek, adibidez: Lizarrako Errokamadorko eliza, Faltzes ondoan Arcas-ko Andre Mariaren eliza, Obanos ondoan Eunateko Andre Mariaren eliza, eta Etxabarrin etxe bat. Hauek ez ziren inoiz, J. Goñi Gaztanbideren iritziz, tenplarioenak izan⁵⁶.

Gipuzkoan ez dago tenplarioak aipatzen dituen agiririk, baina bide-zaintzaile zirenez gero (eta Gipuzkoan, besteak beste, Santiago bidea zegoenez gero), gure



5.21. irudia. Azpeitiko Soreasuko eliza.

artean ez zirela izan aitortzea ez litzateke zuzena. Zenbaitentzat Azpeitiko Soreasuko eliza tenplarioena izan zen⁵⁷. Aizarnako Andre Mariaren eliza ere tenplarioena izan zela dio, halaber, Lope Isasti historia-lariak²². Aizarnako Santa Engraziako ermita ere tenplarioena zela idatzi izan da, bideak zaintzeko eraiki zutelako (Asteasuko Santa Marina ermita ere bai)⁵⁸.

Ez dakigu zertan oinarrিতa dagoen Aizarnako elizaz eta Santa Engraziako ermitaz esandakoa. Elizaren aurreko plazaren ondoan Gurutze Santuaren ermita du, geroagokoa, eta Gurutze Santua zen tenplarioen ikurra. Dena den, Iturrioztik eta Ernio aldetik bidea zetorren Santa Engraziako barrenera, eta bertan jaiak Santiago egunez egiten dira oraindik ere. Santa Engrazia barrenetik “arranbidea” zihoan San Pelaio-ra, eta santu hau Santiago bideko ermitetan maiz azaltzen da. Aizarnatean ere San Joantxo ermita dago, eta hortik Iraeta alderako bidea hartuta Arroan Santa Ana egunean izaten dira festak, hau da, Santiago egunaren biharamunean. Hortik Santuarango Salvatore eta Itziar ditugu hurrengo. Beraz, Iturriotz eta Itziar lotzeko bideren bat egon zitekeen Aizarnan barrena. Iturrioztik Gipuzkoa barruko Santiago bidea zihoan (Usurbilgo Zubietatik Iturriotz eta Mandubia edo “Manduria” aldera), eta Zumaiatik Elorriaga, Itziar eta Astigarribia aldera zihoan kostaldeko Santiago bidea.

Aizarna aipatzen duen lehen testu idatzia, guk lortu ahal izan duguna behintzat, 1303-III-22koa da. Bertan “... Lope Martinez d’Ayçarna...” esaten da⁵⁹. Santa Engraziaz eskuratu ahal izan dugun agiri zaharrena 1405-XI-6koa da. Orduan Avignongo Benedikto XIII.a aita santuak Savonan induljentziak eman zizkien ermita konpontzeko laguntza ematen zutenei²⁵. Ermita eta ingurua indusiko balira, agian tenplarioen edo antzinagokoen aztarnak agertuko lirateke.

Gipuzkoan tenplarioekin lotu izan den agiri bat bada, Gaztelako Fernando IV.a erregeak eta Beltran III.a Ibañez Gebarakoak, Oñatiko jaunak, egindako truke baten berri ematen duena. Agiria Valladoliden,

1305eko ekainaren 22an, sinatua da. Gebaratarrak erregeari Araban zituen nekazari-morroiak eman zizkion, eta erregeak Beltran jaunari Oxirondo, Uzarraga, Arriaran, Azpeitiko Soreasu eta Zarauzko monasterioak⁴⁵.

Zenbaiten ustetan, ordea, Gipuzkoako monasterio horiek ez ziren tenplarioenak izan, delako agiria 1305. urtekoa delako eta tenplarioen aurkako ekin-tzak 1307. urtean hasi zirelako¹². Guretzat, berriz, ez dago hain garbi tenplarioen aurkako jazarpena Gaztelako erreinuan 1307. urtean hasi izana. Gonzalo Martinez Diez jaunak Gipuzkoako agiriez dituen bildumetan honako hau ikusten da: Gaztelako Antso IV.a erregeak 1292-I-10ean Burgosen Donostiako Mixen Mans probestu-karguan sendotzeko emandako agirian azaltzen dela azken aldiz Tenpleko ordenako maisua (“Gonçalbo Yanes, mestre del Temple”) sinatzaile gisa. Jerusalemgo San Joango Ospitaleko komendadore nagusi Fernan Perezek ere sinatu zuen. Harrezkero (1292. urteaz gero), baina, Ospitaleko arduradunek jarraitu zuten erregeen agiriak sinatzen; baita Tenpleko ordena 1312an deuseztatu ondoren ere. Ez, ordea, Tenpleko maisuek 1292. urteaz gero⁹. Beraz, Beltran III.a Ibañez Gebarakoari trukean emandako Gipuzkoako monasterioak izan zitezkeen Tenpleko ordenakoenak.

Iritzi hori indartzen du Manuel Lekuona jaunak bere ikerlan batean. Azpeitian, adibidez, “Gomendioso” toponimoa dagoela dio (orain “Komuntso” esaten diogu), hau da, gomendio edo ustiapen-gunea zegoela²⁹. Guk 1348-I-18ko “Gomensoro” toponimoa (“Martín de Gomensoro”) aurkitu dugu¹⁴. Uzarragari dagokionez, tenplarioen hilerriei buruzko datuak ematen ditu On Manuel Lekuonak. Urrundik ere ekartzen zituzten, nonbait, gorputzak hobiratzerara Uzarragara. Santuen adbokazioak ere aipatzen ditu. Besteak beste, Salvatore (Arriaranen, Usurbilen, Getarian, Itziarren eta Oiartzunen daude elizak), San Anton, Santa Katalina, Sanctispiritus, San Joan (Uzarragan), Santa Marina (Oxirondon), Gurutze Santua eta San Sebastian (izurriteetatik babesteko santua, Azpeitian, Garinen eta Donostiako Antiguan)²⁹.



5.22. irudia. Antzuola. Uzarragako eliza.

Valladoliden Gaztelako erregeak eta Oñatiko jaunak 1380-XII-9an sinatutako agiriaren ondoren, bada, nire ustez, tenplarioen gai honetan beste agiri interesgarri bat ere. Hau 1307ko apirilaren 28an egin da. Bertan Martin Santxez San Lorentekoak, Oñatiko San Migelgo abadeak, Beltran III.a Ibañez Gebarakoren eta honen emazte Urraka Ibañezen izenean Antzuolako Irinmodo, Galardi eta Ilurriarroko saroiak saldu zizkion Santxa Uriarteri eta Pedro Ibañez semeari 800 marairen truke¹⁴. Saroi horiek ere tenplarioenak izan zitezkeen. Baliteke bide garbitik bereganatu ez zituzten ondasunen jabetza beste esku batzuetara pasatu eta horrela etorkizunean erreklamazioei oztopoak ipini nahi izatea.

5.3.6. Iruñea eta Orreaga Gipuzkoan

1305. urteko martxoaren 16an, Iruñeko elizbarrutiko Joan Joaniz Aitzagakoa artxidakonoaren erabakiz (apezpikurik gabe zegoen elizbarrutia) Donostiako San Bartolomeko komentua Iruñeko apezpikuaren

mende geratu zen. San Agustinen erregelaz gobernatuko ziren komentuko mojak eta Iruñeko apezpikuari zenbait zerga ordainduko zioten urtero⁵⁶. Donostiako Bideko (Donostiatik Hernaniko bideko) San Bartolome komentua 1250-X-28an hartu zuen bere babespean Inozentzio IV.a aita santuak¹⁴.

Dena den, Nafarroako Orreagako komentua Gipuzkoan bere ondasunak zituen. Horieta bat Zumaiako San Pedro eliza (lehen Andre Mariaren izenekoa zena) eta inguruko lurrak ziren. Zumaiako hiribildua sortu baino lehen, Saiazko biztanleek Orreagako priorearekin tratua egin behar izan zuten, Zumaiako lur askoren jabe zelako. Ituna Iruñeko apezpikutegian sinatu zen 1344-X-30ean. Hori baino lehen, ordea, alde batekoek nahiz bestekoek ahalordea eman zieten ahaldun batzuei gaia negoziatu eta agiria sina zezaten. Zumaiako ordezkariak hauek ziren: Beltran Ibañez Dornutegikoa, Beltran Arteaga, Joan Martinez Otsangokoa (San Pedroko elizako kapilaua), Martin Lopez Liziobiagakoa (Elorriagakoa

da, eta ez Liziobiagakoa) eta Pedro Ibañez Murabiakoa (berez Miurubia da, orain Mirubia esaten dugun Aizarnazabalgo etxekoa). Zumaiakoek ordezkari ahalordea emateko agiria 1344-X-19an eman zieten. Orreagako prioreak eta komentuak, berriz, ahalordea Antso Gartzia Etxaguekoari eman zioten 1344-X-26an.

1344-X-30eko itunean adostu zuten, Orreagak Zumaiako hiribilduan biziko zirenengandik urtero enfiteusi-zentsu bidez 440 marai jasoko zituen. Itun-agirian Orreagak Zumaian zituen lurak eta ondasunak izendatzen dira: “Ardança” (oraingo Ardantza), “Yunçuru” (oraingo Itzurun), “Narruondo” (oraingo Narruondo, zalantzarik gabe) eta bertako errotaren erdia eta bidean zituen ondasunekin, “Lagoa” (ez da toponimoa, “dende el agoa”, hots, “uretatik”, baizik), Picote (oraingo “Pikoten” soro bat), “Çaualiaga” (Zabaliaga, Itziarko lurretan), “Sarasgarate” (oraingo Saskarate, Itziarko partean) eta “Otabarça” (Otabar-

tza, Itziarko lurretan, orain trenbide-tunelaren gainean Utartza edo Uztartza baserriaren aurriak dauden lekua⁶⁰) eta “Yçiar”en (Itziarren) dagoen Olanoko sarioia (Lastur ondoko Olano izan daiteke), eta “Yrure”ko presa, eta “Vitarte” (oraingo Bitarte) eta “Barçusia” (“Barçusta” da, oraingo Basusta) eta “Çumayenci” (“Çumayença” edo “Çumyayença”, oraingo Santiagoko hondartzako ermita dagoen lekuan⁶⁰) bere hondartzarekin, eta “Ytegui”ko (Itegi-ko) errotan duen partearekin, eta “Ozpide”n (Aizarnazabalen) bi soro, eta “Obillos”en (oraingo Ubillosen) soro bat, eta “Orebia”n (“Orobia” forma ere aurkitu dugu, agian “Oroibia”tik eratorria.¹² 1524-IX-21ean Domingo Lizarrats zestoarrak Arroan erositako Oribia baserria zegoen lekua izango zen. Gainera 1436ko [XV. m. 11] agirian Arroako Joan Oribia aipatzen da) eta “Atecherbia”ko (“Areherbin”, “Atecheaga” eta “Varaçeaga” formak ere topatu ditugu leku-izen honentzat, eta gure ustez “Baratzeaga” da) erriberan soro bat, “Larrançadin” (Larrantzadin) soro



5.23. irudia. Narruondo, Zestoa eta Zumaiako mugan.

bat, eta “Oquynako” (Oikia) San Bartolome elizaren aurrean soro bat, eta “Viteaga”n (Urteagan, gure ustez oraingo Urteagazarren) soro bat, eta “Aguirre” (Oikiako Agirre) izeneko lekuan etxea eta honen ondasun guztiak, eta “Yteguiko” (Itegiko⁶¹) errotaren zatia eta Zumaiako ospitalea.

Zumaiako biztanleek, Orreagari urtero 440 marai emateaz gain, ibaia zeharkatzeko ontzia eta ontzizaina ipini behar zituzten (besteak beste, kostaldeko Santiago bideko erromesentzat). Orreagako komentuar ahalmen batzuk bere esku gorde zituen Zumaiako elizan eta ospitalean. Ahalmen horiek komentuar erabat gobernatuko zituen, Iruñeko apezpikuak zeuzkan eskubideen kalterik gabe. Elizako patronatua Orreagak bere esku mantendu zuen. Bestalde, Gabonetako eta Garizumako Pazkoetan bina maraiko ofrendak jasoko zituen. Elizako hasikin edo primiziak ere Orreagak erabiliko zituen eliza bera mantentzeko.

Zumaiarrek, ordainetan, eskubide batzuk lortu zituzten. Ezin zituzten Zumaiako eliza eta ospitaleko lur eta ondasunetatik bota, eta Orreagakoek ezingo zituzten lur eta ondasun haiek okupatu. Elizako priorre, abade edo parrokoa zumaiarrek aurkeztuko zuten, eta betiere kargu horretarako zumaiarra aukeratu zuten. Bigarren kapilaua ere izendatu zuten, baldin eta elizako errentak (hamarrenak, aldareko ofrendak eta opalkuntzak) 440 marai baino handiagoak baziren.

Handik ia hiru urtera, 1347-VII-4an, Zumaiako hiri-gutuna sinatu zuen Gaztelako Alfontso XI.a erregeak⁶².

Orain artekoaren oinarria lehen aipatutako hiru agiriak dira, Gonzalo Martinez Diez eta laguntzaileen liburuan Zumaiako Udaleko artxibotik transkribatuta daudenak⁹. Guk agiri horien beste kopia bat lortu ahal izan dugu Valladolidko Kantzelaritzako artxiboan⁶³, eta hortik zenbait leku-izen berez zein diren identifikatu ahal izan dugu. Parentesi artean ipini ditugu, lau paragrafo lehenago, gure ustez zuzen dauden formak.

XIV. mendearen erdialdeko agiri batean (Aizarnazabalek eta Oikiak Zumaiarekin izandako auzian dagoenean) honako hau dio: “... por el dicho ynstrumento de conuenios de parte ... agora de nuevo avían presentado çiertos bienes e heredades... de Çumaya perteneçientes situados en la juris ... Çumaya de Yçiar e de Guetaria e que por tanto por la heredat... fueron dados a emphiteosi et çense segund pareçe de suso ...”⁶³.

Eta Saiazko jendeak Orreagarekin 1344-X-30ean enfiteusi-ituna egin zuenean honela dio: “otrossi una tierra labradía que es clamada Picote et otrossi Çabaliaga ete Sarasgarate et Otabarça et el sel d’Olano en el termino de Ycciar et la presa d’Irure et Vitarte et Barçusia et Çumayençi con ssu arenal...”⁹. Gure iritziz hor Itziarko partekoa ez da Olanoko sarioa bakarrik, Zabaliaga, Sarasgarate, Otabartz eta Olanok osaturiko multzoa baizik. Gainerako leku-izenak Zumaiako eta Getariako lurretan egongo ziren. Beraz, hor aipatzen den Irureko presa Basusta ondoko Irureri zegokiona izango da, eta ez Ibañarrietako Irureri zegokiona (bestela Itziarko lurretan zegoela esango zuten). Bestalde, itsasadarraren ondoan presa marea-aren ura baliatzeko izan zitekeen, edo, bestela, “presa” hitza beste esanahi batekin erabili zuten: alegia, “ureztatzeko zanga edo erreten” moduan⁶³.

Dena den, Orreagarekin Zumaiak egindako ituna auzi-iturri izan zen. Geroztik Zumaiak Orreagarekin ez ezik, Aizarnazabalekin, Oikiarekin, Zestoarekin, Debarekin eta Getariarekin gatazkak mendetan zehar izan zituen.

Getarian bada, bestalde, “Orruaga” izeneko base-ria (orain “Orrua” deitzen duguna). XV. mendeko agiri batean “Orreaga” idatzita ere ikusi izan dugu⁶³, baina, egia esan, ia beti “Orruaga” azaltzen da hainbat eta hainbat agiritan. Hala ere, “Orruaga” “Orreaga” formatik oso hurbil dagoela iruditzen zaigu.

Orreagako agirietan azaltzen den Otabartz leku-izena, gure ustez, Itziarko partean Errotaberri ostatu ondoan dago. 1483-VI-2ko agiri batean⁶⁴ honako hau



5.24. irudia. Otabartzaren (Utartza edo Uztartzaren) kokalekua trenbide-tunelaren gainean.

azaltzen da:... de cruces en filo de tres a tres, pegado a Lopearriça, ge lo apearon e vendieron. E los castaños que son fuera de estas cruces fasy Otauarça como estan al presente...”. Horko Lopearritza, jakina, orain hutsik dagoen Lopertza baserria da. Inguruko baserrietan Itziarko jendeak Utartza (lehen silabari azentua emanez) jotzen du Otabartzaren parekotzat, nahiz eta Errotaberri eta ingurukoek Uztartza forma ere erabili. Utartza eta Uztartza, bi formak daude Luis Mari Mujikak euskal toponimiaz egindako bilduma erraldoian⁶⁵. Beraz, gure iritziz, delako Otabartz Itziarko Santuaran eta Uzkinga baserriaren artean dago, Debako lurretan. Otakor mendia da, gure ustez, Otabartzako gaina.

Bestalde, Zabaliaga saroia zela adierazten da 1391-II-25eko Elorriagako agiri batean⁶⁶.

Orreagak Gipuzkoan Andatza mendian ere (Usurbil, Aia eta Zizurkilen) bazituen bere eskubideak:

inori ezer ordaindu gabe abereak bertan larratzekoa, adibidez. 1330eko martxoaren 2an Tolosan erregearen hiru alkatek auzia erabaki zuten Andatzako larrei buruz. Alde batetik Orreagako ospitaleko ordezkari Lope Ibañez Aizkonakoa zegoen, eta bestetik Gil Lopez Oñazkoa eta Gipuzkoako zenbait kapare. Hauek Orreagako unanmaizterrari behiak Andatzen larratzeagatik kobratu egin nahi izan zioten, baina epaia Orreagaren aldekoa izan zen, horretarako eskubidea zuelako³⁴.

Bestalde, Agintaritza zibila eta Elizarena zutenen artean zenbait liskar izan zen XIV. mendean. Iruñeko elizbarrutiak Gipuzkoan eta Aragoiko Valdonsellan artzapez-barrutiak zituen, hau da, Nafarroako erreinutik kanpo zenbait lurralde ere elizaz bere mende zeuden. Gipuzkoako lur gehienak Iruñeko elizbarrutikoak ziren, nahiz eta Gaztelako erreinukoak izan (Valdonsella, berriz, Aragoiko erreinuari zegokion). Nafarroako erreinutik kanpoko artzapez-barruti

horietan “Kanpoko Ofizial” deitutako arduradun bana zuten, bakoitzak bere barrutian auziak epai zitzen.

Gipuzkoako Kanpoko Ofizialak Donostian zuen egoitza, eta 1379. urtean Pelegrin Engomez zegoen kargu horretan. Donostian arlo zibileko auzi asko konpontzeko ere Kanpoko Ofizialarengana jotzen zuten, baina hori ez zuten inola ere gogoko Gaztelako erregeek, eta Alfontso XI.a erregeak debekatu egin zien Ofizialei Elizaren arlokoak ez ziren auziez erabakiak hartzea. Donostiarrek, ordea, debekua ez zuten aintzat hartu, eta 1379an, adibidez, Hernanik Donostiarekin Urumeako mendi, larre eta uren erabilpenaz egindako itunean Pelegrin Engomezi eskatu zioten agirian ofizialtzako zigilua ezar zezan⁶⁷.

Aurkako arazoak ere izan ziren, ordea, hau da, errege eta nobleek Elizako gaietan erabakiak hartzen zituzten Iruñeko apezpikuaren agintaritzan kontuan hartu gabe. Elizetako patronatuei buruzko gaietan eta elizetako karguetarako pertsonak izendatzean izaten ziren liskarrak. Gorabehera haietan Iruñeko Martin Zalba (kardinala) nabarmendu zen. 1377-XII-16an izendatu zuten Iruñeko apezpiku, eta 1379ko urrian etorri zen bere egoitzara. Avignongo aita santuen aldeko izan zen beti, eta Gipuzkoan arazoak izan zituen elizetarako kargu-izendapenak egin behar zirenean⁵⁶.

5.3.7. Burdinolak

XIV. mendearen hasiera arte badirudi Gipuzkoan burdina lantzeko olak mendian zeudela. Hain zuzen “haizeola” deitzen zitzairen. Basoan eraikitako labeak ziren, eta agoa edo erdi urtutako metal-masa mazoaz eskuz jota lantzen zuten burdina. XIV. mendearen hasierako agirietan bi eratako burdinolak aipatzen dira: eskuz lantzekoak eta uraren indarrak baliatuta lantzekoak: “... habemos ferrerias masuqueras e otras de mazo de agua...”. “Masuquera” berez “baso-aukera” interpretatu izan da, hau da, basoko labea, burdina eskuz lantzekoa. Hain zuzen haizeola horiek zeuden lekuan zepa multzoak edo zepadiak azaldu dira. Haizeolaren labea txikia zen, bizpahiru metro altukoak eta metro bateko diametrokoa. Batzuk erdi lurperatuta zeuden. Haizea ahuntzaren

edo ardiaren larruaz egindako hauspoez sartzen zitzairen, zurezko tutuaz edo kanabera bidez. Oinaz eragiten zioten hauspoari. Mendian haizeak gehien nondik jotzen zuen ere kontuan hartzen zuten. Bestalde, kondairak dioenez, jentilak ziren burdina lantzen zekitenak, eta badira “jentilola”, “jentiletxe” eta antzeko leku-izenak zepadien inguruetan⁶⁸.

Zepa-noduluak Zarauzko Arbiunen topatu zituzten (K.o. III. mendearen amaierakoak edo IV. mendearen hasierakoak dira), Antzinaroari buruzko kapituluan jakinarazi dugunez. Lehenago ere, Burdin Aroan, harresiz inguratutako hirietan bazituzten burdina lantzeko labeak. Azpimarratzekoak dira ErrezilgoT xillarramendi auzoan, Zestoako mugatik gertu, dauden Zepadigoikoa eta Zepadibekoa baserriak (“Zepai” baserriak, alegia), “haizeolaren” baten lekuko izan daitezkeelako. Haizeola muinoaren gainean egon zitekeen, bertako haizea labea hobeto berotzeko aprobetxatuz.



5.25. irudia. Errezil. Zepadigoikoa baserria.

XVII. mendean, 1625ean, Lope Isasti lezoarrak, burdinolei buruz ari dela burdina eskuz lantzeko olak aipatzen ditu²². Zestoan ere bere garaian “haizeolak” izango ziren basoan, baina hiribildua sortuz gero agi-rietan uraren indarrak baliatzen zirenak (hau da, “zeharrolak”) baino ez dira aipatzen.

Burdina lantzeko, ordea, burdin mineralaz gain egur-ikatz behar zuten. Ikatz hori basoko egurraz egiten zuten txondorretan, eta minerala (orain Urola deitzen diogun eta XIV. mendean Legazpi deitzen zen ibaian gora eramateko) Bizkaiko Muskiz aldetik ekartzen zuten itsasoz Beduaraino. Besteak beste, Zestoako burdinolak Beduatik hornitzen ziren.

Oiartzun eta Irun-Urantzu aldeko olagizonei Gaztelako Alfontso XI.a erregeak 1328-V-15ean eskubidea eman zien edozein errege-basotan (jabetza pribatukoak ez zirenetan) egurra hartu eta ikatza egiteko. Presak egiteko, gurpilak ipintzeko eta abarretarako eskubidea ere eman zien Burgosen, aipatu-tako datan, sinatutako agirian. Hamar urte geroago, 1338-IX-17an errege berak Guadalajaran sinatutako agirian Oiartzun eta Irun-Urantzuko olagizonei emandako eskubideak Gipuzkoako edozein burdinoletara hedatu zituen¹⁴. Agiri hori Zestoako Udal Artxihoan dagoelako⁶⁹ (bertan datarik zaharrena duen agiria da), “Agiritegia” deitu diogun kapitulu-uan eman ditugu zehaztasunak eta argibideak [XIV. m. 1] izendatuta. Agiri horren transkripzioa zenbait oharrekin argitaratzen duen beste liburu bat ere bada⁷⁰.

5.3.8. Nabigazioa

XIV. mendeko nabigazioari gagozkiolarik, aipagarria da 1306. urtean Baiona, Santander, Castro Urdiales, Laredo, Getaria, Hondarribia, Donostia eta Bermeo-koek egin zuten ituna²³.

1337. urteko agiri batean Bizkaiko Ibaizabalen zeuden Ibarra, Isopetegi, Arriaga, Arbolantxa, Basurto, Sesumaga eta Zurbarango ontziolak aipatzen dira⁷¹.

Gipuzkoako itsasontziek parte hartu zuten 1327an Marokoren aurkako gerran, eta 1337.ean Portugalen aurkakoan. Bietan garaile atera ziren. Garaituak izan ziren, ordea, Tarifako setioan 1340an.

1343. urteko ekainaren 25ean Gaztelako Alfontso XI.a erregeak Getariako biztanleei pribilegio batzuk eman zizkien, benimenrindarren erregearen eta Granadako erregearen aurka Algecirasko setioan itsasontziekin parte hartu zutelako. Beltran Belez Gebarakoa ere han zen bere soldaduekin²⁴. 1344. urtean Hondarribian batzarra egin behar zuten Ingalaterrako eta Gaztelako erregeek bidalitako ordezkariak, hau da, Gaztelako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Ingalaterrako ordezkariak bildu ziren. Hogei urtez iraungo zuen su-etenak itsasoan eta lehorrean. Bakeak, ordea, ez zuen luze iraun; izan ere, Gipuzkoako merio nagusiak eta Baionako ahaldunak 1347-XII-26an bakea ezarri egin behar izan zuten 1348ko maiatzaren 8a arte²³.

Ingalaterran Hastings eta Folkestone arteko Winchelseako batailan parte hartu ondoren, 1351. urteko abuztuaren 1ean, berriz, ituna egin zuten Londresen, Ingalaterrako, Gaztelako eta Bizkaiko konderriko biztanleek lehorretik eta itsasotik beren edozein portu, herri eta hiritan ibiltzeko askatasuna izan zezaten¹⁴. Gipuzkoako prokuradore Martin Perez Golindanokoa izan zen²⁴. 1353ko urriaren 29an Hondarribian Baionak Paduretako Ermandadeko ordezkariekin merkataritzako eta nabigazioko ituna sinatu zuen, eta hiru urte geroago, 1354-VII-9an, Ingalaterrako erregeak berretsi egin zuen itun hura¹⁴.

Gipuzkoako itsasontziek 1358an Aragoiren aurkako gerran parte hartu zuten, eta 1359an ere bai, berriz ere Aragoiren aurka. 1363an Bizkaia eta Gipuzkoako portuetakoek harreman onak zituzten Ingalaterrako erregearekin, eta merkataritzak oparoaldia izan zuen²³.

Nafarroako Karlos II.a erregeak, bestalde, 1365. urtean itsasontzi bat prestatu zuen Donostian Normandiako Cherburg hirira tropak bidaltzeko³⁸.

1371-VI-23an Arroxelaren kontrako erasoan gipuzkoarrek parte hartu zuten. Aurrez Winchelsean izandako porrotaren ordaina izan zela diote Arroxelakoa. 1373an berriz ere Portugalدارren aurka ekin zioten, 1380an Tamesi ibaian gora joan ziren, eta 1380an Lisboari eraso zioten. Kortsario gisa ere iaioak ziren garai hartan marinel gipuzkoarrak²⁴.

Argi eta garbi ikusten da Gipuzkoan (eta Euskal Herriko kostalde osoan) ontzigintza indartsu zegoela XIV. mendean. Bertan zituzten ontziolak, eta ontziak egiteko zur, burdina eta gainerako gaiak. Baita maisu eta langile onak ere, besteak beste, Urumea, Oria, Urola eta Deba ibaietako ontzioletan. Ontzi mota bat baino gehiago egiten zuten, noski. Bermeoko arrantzale-kofradiako 1353ko ordenantzetan ontzi-mota hauek aipatzen dira: pinazak, “karreo” edo “karrerokak”, “baxelak”, “fustak”, itsasontziak eta karabelak⁷².

5.3.9. Aizarna, Narruondo, Zestoa, Arroa, Iraeta, Akoa eta Bedua. Lehen aipamenak

Antzinaroari buruzko kapituluan aipatu dugu 589. urtean Rekaredo erregeak deituta Toledoko kontzilioan Iruñeko Liliolo apezpikua bertan izan zela. Zestoako Lili leku-izenaren antza duela aipatu izan da⁷³, baina gure ustez ez dago inongo froga sendorik apezpikua eta Zestoako leku-izena lotuta daudela ziurtatzeko.

Antzinaroaz dihardugun kapituluan, halaber, Ravennako ezezagunak K.o. VII. mendearen erdi aldera idatzitako geografian datorren Cistonia herri-izenean gure Zestoaren antza ikusi izan dugu, baina hor ere ez dago ziur erabakitzerik biak leku bera direnik.

Zestoarekin zerikusia duten hurrengo aipamenak Erdi Arokoak dira. Batak dioenez²¹, Esteban Aizarnateak (Aizarnakoak) 1212. urtean Navas de Tolosako batailan parte hartu omen zuen. Ez dakigu berri hori nondik jaso den, baina bataila baino mende batzuk geroago idatzitako testuren batetik hartutakoa dirudi. Beltran Iraeta ere izan omen zen

bataila hartan Gipuzkoak Gaztelako Alfontso VIII.a erregeari laguntzeko bidalitako tropen kapitain gisa²². Ez dakigu albiste hau zenbateraino den fidagarria; izan ere, Lope Isastiren idazlana XVII. mendekoa baita.

Arroan orain “Joanenea” deitzen dena lehen “Etxea” zen, eta amustegitarrena izan omen zen. Joan Erentxun historialariak dioenez, Andres Amustegikoa Beotibarko batailan izan omen zen 1321. urtean, eta Martin Etxea Saladoko batailan 1340. urtean⁷⁴. Joan Erentxun beraren beste lan batean “Gantxil” izenekoa dela dio delako Arroako “Etxea”⁷⁵. Egia esan, ez zaizkigu datu fidagarriak iruditzen, ez bata eta ez bestea.

Donostiako San Telmo Museoa Lilitarren agiritan bada bat 1326an Martin Diaz Lilikoa bertako burdinola, etxe eta erroten jabe zela dioena⁴⁸. Hala ere, testu hori XIX. mendekoa da, eta ez dugu uste batere fidagarria denik XIV. mendeko albisteei dagokienez. Lehen ere esana dugu Martin Diaz 1404-XII-19an azaltzen dela Lilin (ikus [XV. m. 1] agiria).

Hemendik aurrera iturri fidagarrietako Zestoako leku-izenak aipatuko ditugu, zaharrenetik berrienera. Lehenbiziko aipamen segurua, gure ustetan, 1303-III-22koa da. Egun hartan Donostian Antso Santxez Gebarakoak Donostiako San Bartolomeko mojakomentuari Arratibelgo zubiko errota saldu zien⁵⁹, eta errota inguruko biztanle bat “Lope Martinez d’Ayçarna” zen. Hor dugu, beraz, Aizarna izena XIV. mendearen hasieran erabilia. Agiri berean lekuko gisa “Pero Yvanes de Urvyeta” jaunak sinatzen du, baina ez dago ziurtatzerik “Urbietta” hori Zestoako Urbietta (edo Urbitta) baserriarekin edo bailararekin lotuta dagoenik. Kontuan hartu behar da garai hartan Urbietta bailarak Txiribogan hasi eta Granadaraino Alzolarats errekararen inguru osoa hartzen zuela.

XIV. mendearen erdialdeko agiri bat bada Aizarna aipatzen duena. Iruñeko elizbarrutikoak ziren Gipuzkoako elizen zerrenda dago bertan. Hamar “corre-





5.26. irudia. Aizarna.

dium” zituen Iruñeko elizbarrutiak Gipuzkoan, eta horietako bat zen Getariakoa. Horren barruan Zumaia, Zarautz, Aia, Aizarna (Hassarna) eta Aizarnazabal (Hassarnaçabal) zeuden³¹.

Ez dakigu Donostiako San Bartolome komentuak eta Oikiako San Bartolome elizak lotura bereziren bat izan zuten, baina Oikiako mojak bazeuden komentu

horretan, 1427. urtean; “Maria Ochoa d’Oyquina” edo Maria Otxoa Oikiakoa, adibidez⁵⁹.

Zestoako beste leku-izen baten aipamen segurua 1344-X-19/16/30koa da⁶³. Zumaiak Aizarnazabal eta Oikiarekin izandako auzi luze baten agirietan azaltzen da behin eta berriz Narruondo (oraingo Narruondo).



5.27. irudia. Zestoaren lehen aipamena duen pergaminioa eta xehetasuna (Azpeitiko Udaleko artxiboa).

1348. urteko agiri batean aipatzen da Zestoa seguru lehen aldiz. Azpeitian (Iraurgiko “Salvatierra” deitzen zitzaion orduan) 1348-I-18ko agiri batean zinegotzi “Martin Diaz de Çestona” ageri zaigu, hots, Zestoa¹⁴. Azpeitiko Udal Artxiboko pergamino batean dagoen agiria, Gaztelako Pedro I.a erregearena da, 1352-VI-25ean egina, baina tartekaturik du 1348-I-18ko aipaturako agiriaren testua ere. Pergaminoaren bosgarren lerroko lehen hitza da Çestona. 1349-VIII-1eko beste agiri batean, Alfontso XI.a erregeak Gibraltarren sinatutakoan, Aizarna agertzen zaigu berriz: “Ihoan Martinez d’Asayrna”¹⁴. “Asayrna” hori, ordea, “Aičarna” da, 1577. urtean Tolosako Juan Lopez Olazabalgoa eskribauak egin zuen transkripzioan⁷⁶.

Zestoa, Arroa (Arroakola) eta Irusta (Iraeta) aipatzen dira Alfontso XI.a erregeak Gibraltarren 1349. urtean sinatutako agiri batean. Pergaminoak ez dago egoera onean, eta dataren hilabetea ez da ikusten, baina 1349-I-15 eta 1349-XII-15 bitartekoa izan behar du⁷⁷. Agiritegian argitaratu dugu transkripzioa eginda. “... ferreria de Arrona”, “Çestona” eta “Yrusta” ipintzen du, baina azken izenean huts egin zuten, Legazpi (oraingo Urola) ibaiaren ondoan Iraetako (eta ez Irustako) burdinola zegoelako (ikus [XIV. m. 2] agiria). Arrona izena 1127an ere aipatzen da Leireko Kartularioan, baina Arrona hori Nafarroakoa, eta ez Zestoakoa, dela iruditzen zaigu⁷⁸.



5.28. irudia. Arroakola. Oraingo A-8 autobidearen Zestoako ordainlekuan zegoen. (Indalezio Oiangurenen argazkia).

Zestoa izena beste behin Bilbon agertzen zaigu 1356-VI-21eko agiri batean⁷⁹, “Martin Dias de Çestona” zaldun edo ezkutaria, hain zuzen. Argi eta garbi idatzita dago “Çestona”, baina kontuan hartu behar da oraingo Sestaori orduan “Çesto” deitzen ziotela ere eta Çestona hori Sestaokoa izan zitekeela.

Iraeta izena 1363. urteko uztailean Pedro I.a Gaztelako erregeak egindako agiri batean agertzen da: “Iuan Beltran de Yraheta” (sic)¹⁴. Iraetako jaun hura fidatzaile zen auzi batean. Joan Beltran I.a Iraeta deituko diogu.

Akoa izena guk erabilitako agirietan lehen aldiz 1374-V-7an aipatzen da. Segurako San Andresen kofradiako estatutu eta Ordenantzetan azaltzen da “Iohan de Acoa”⁹. Gipuzkoan Zestoakoaz gain beste Akoarik ere baden arren (Urnietako saroi bat, adibidez, 1461. urtean aipatua)⁷⁰, zestoarren bat izan zite-

keen Seguran bizi zen Iohan delakoa.

Bedua leku-izenaren aipamen zaharrena Luis Miguel Diez de Salazar historialariak ematen du. 1379-VIII-19ko data du albisteak, eta, bertan dioenez, erregeak Azkoitiko Jausoroko familiari mesede egin zion Beduara zihoan burdinaren hamarren zaharrak emanez⁷⁰.

5.4. BOSGARREN KAPITULUKO OHARRAK

¹ LACARRA, J. M. Historia política del Reino de Navarra. I. alea. Aranzadi argit. Iruñea, 1972. (298-366. or.).

² MARTINEZ DIEZ, G. *Guipúzcoa en los albores de su historia*, in Ciclo de Conferencias “Historia de Guipúzcoa”. Real Sociedad Vascongada de Amigos del País. Donostia, 1978. (54-66, 153. or.).

³ LACARRA, J. M. Historia política del Reino de Navarra. II. alea. Nafarroako Aurrezki Kutxa. Aranzadi argit. Iruñea, 1972. (11-108, 125, 131-136, 146, 163-178, 183-190, 218, 231, 251-269. or.).

⁴ ALBIZU, X. eta beste. Euskal Herriko Historia I. Gaiak argit. Donostia, 2004. (134, 135, 145, 150-153, 171. or.).

⁵ HIGOUNET, Ch. Histoire de l’Aquitaine. Privat Editeur. Tolosa, 1971. (177-180. or.).

⁶ MARTINEZ DIEZ, G. Guipúzcoa en los albores de su historia (S. X-XII). Gipuzkoako Aldundia. Donostia, 1975. (72, 73, 191, 197-213. or.).

⁷ GOÑI GAZTANBIDE, J. Historia de los obispos de Pamplona, I. s. IV-XIII. Iruñea, 1979. (170-177, 358, 509, 524, 527, 540, 545, 546, 551, 567, 585, 648, 652, 678, 707. or.).

⁸ BARRENA OSORO, E. La formación histórica de Guipúzcoa. Mundaiz, 5. Donostia, 1989. (141-169, 205, 206, 247-288, 293-309, 341, 350-353, 372-377, 405-418. or.).

⁹ MARTINEZ DIEZ, G. eta beste. Colección de Documentos Medievales de las Villas Guipuzcoanas (1370-1397). Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1996. (21, 30, 49, 50, 57, 60, 61, 63, 64, 67-69, 78-80, 94-96, 101, 102-106, 152, 153, 193, 241, 441-450. or.).

¹⁰ XX. Fijación de dos mojones en Etumeta y visita de los doce seles que los concejos de Cestona y Regil tienen en Hernio. 1512-VIII-9. Pedro Inazio Aginagalde Zumaiako eskribauaren kopia. (Zestoako Udaleko artxiboa. Hacienda Municipal. Liburu-zk. 1. Negoziatua: Bienes Municipales. Expediente-zk.: 5. Sorta: Término municipal).

¹¹ XX. Sentencia arbitraria entre los concejos de Cestona y Régil sobre el uso y aprovechamiento de los 12 seles que tienen comunes en la Sierra de Hernio y se aplica además uno por entero a Régil y medio a Cestona (1452-X-28. Pagarte, Zestoa). Pedro Inazio Aginagalde Zumaiako eskribauaren kopia (1785-VIII-9). (Zestoako Udaleko artxiboa. Privilegios. 1. karpeta).

¹² AIERBE IRIBAR, R. Historia del condado de Oñate y señorío de los Guevara (S. XI-XVI). I. alea. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1985. (59-159, 177, 543, 559, 565, 568, 569, 571. or.).

¹³ LACARRA, J. M. Fueros de Navarra I. Fueros derivados de Jaca 1- Estella-San Sebastián. Nafarroako Foru Aldundia. Iruñea, 1969. (17-31. or.).

¹⁴ MARTINEZ DIEZ, G. eta beste. Colección de Documentos Medievales de las Villas Guipuzcoanas (1200-1369). Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1991. (17, 18, 21-23, 28-31, 34, 36-39, 41-45, 58, 59, 62, 69, 70, 75, 76, 79-83, 109-114, 137, 138, 142-144, 146, 147, 152-154, 156-158, 171, 172, 191, 192, 199, 200, 202-208, 213, 236, 237, 251-255, 266, 271, 301, 306, 315, 335-338. or.).

- ¹⁵ SAGREDO, I. Navarra. Castillos que defendieron el Reino. I. alea. Pamiela argit. Iruñea, 2006. (318-325. or.).
- ¹⁶ GARCIA LARRAGETA, S. El Gran Priorado de Navarra de la Orden de San Juan de Jerusalem. Siglos XII-XIII. II. Iruñea, 1957. (102, 168. or.).
- ¹⁷ INTXAUSTI REKONDO, J. Segura en su pasado y camino. Segura, 2006. (19, 20. or.).
- ¹⁸ ARIZAGA BOLONBURU, B. El nacimiento de las Villas guipuzcoanas en los siglos XIII y XIV: Morfología y funciones urbanas. Donostia, 1978. (21-30, 73. or.).
- ¹⁹ ORELLA, J. L. eta beste. Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (59. or.).
- ²⁰ VILLIMER, S. *Estudio lingüístico del Fuero de Población de Vitoria*, in Boletín de la Institución Sancho el Sabio. Gasteiz, 1974. (195-203. or.).
- ²¹ ERENTXUN, J. Apellidos Blasonados. Enciclopedia Guipuzcoana. 5-6-7. zk. Donostia, 1965. (28, 103. or.).
- ²² ISASTI, LOPE. Compendio Historial de Guipúzcoa. V. eta VI. zk. I. eta II. zatia. (236, 556. or.).
- ²³ LABAIRU GOIKOETXEA, E. Historia General del Señorío de Bizcaya. II. alea. Biblioteca de La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo, 1968. (218, 219, 227, 228, 250, 272, 292, 343, 346, 347, 351, 353, 358, 362, 385, 386, 392, 393, 422, 423, 425, 427, 441, 442. or.).
- ²⁴ AROZENA, F. Guipúzcoa en la historia. Minotauro argit. Madril, 1964. (98, 99, 108, 109. or.).
- ²⁵ RUIZ DE LOIZAGA, S. Documentación Medieval de la Diócesis de San Sebastián en el Archivo Vaticano (Siglos XIV-XV). Tuesta bilduma, 2. alea. Erroma, 2000. (13-16, 66, 67. or.).
- ²⁶ INTXAURRANDIETA, P. Astigarribiako San Andres eliza. Mutriku, d/g. (26, 31. or.).
- ²⁷ XX. Arantzazuko Amaren Egutegia, 2006-V-18, 2007-III-2/9.
- ²⁸ ACHON INSAUSTI, J. A. A voz de Concejo. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (35, 50, 53, 54, 57, 59, 66-74, 76, 79, 89-91, 103. or.).
- ²⁹ LEKUONA, M. *Escollos de nuestra historiografía*, in Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País. XXVII. urtea, 1 eta 2. koadernoak. Donostia. (3-18. or.).
- ³⁰ OLAETXEA LABAIEN, J. B. *Zumaia y su vinculación con Roncesvalles, antes y después de la promulgación de la carta puebla*, in Zumaia 650 urte, hitzaldiak. Zumaia, 1999. (188. or.).
- ³¹ ELUSTONDO, A. *Zumaiako mila urteko bilakaera*, in Zumaia 650 urte, hitzaldiak. Zumaia, 1999. (99, 105-111. or.).
- ³² ORELLA, J. L. Guipuzcoa y el Reino de Navarra en los siglos XIII y XIV. Mundaiz, 4. Donostia, 1987. (17, 31, 32, 36, 39, 69, 73. or.).
- ³³ TENA GARCIA, M. S. La sociedad urbana en la Guipúzcoa costera medieval: San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía (1200-1500). Donostia, 1997. (199, 200, 208, 209, 224-227, 248-251, 352, 372-374, 443. or.).
- ³⁴ LEMA, J. A. eta beste. Los señores de la guerra y de la tierra: nuevos textos para el estudio de los Parien-

tes Mayores guipuzcoanos (1265-1548). Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 2000. (23, 24-26, 33, 39, 50, 101, 102, 107-112, 114-217. or.).

³⁵ AROZENA, I. *Los Parientes Mayores y las guerras de bandos en Guipúzcoa y Vizcaya*, in Historia del Pueblo Vasco 1. Erein argit. Donostia, 1978. (151, 152. or.).

³⁶ DIEZ DE SALAZAR, L. M. eta AIERBE, R. M. Juntas y Diputaciones de Gipuzkoa (1565-1568) Documentos. IV. alea. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1990. (168. or.).

³⁷ LIZARRALDE, M. *Donostiaren erroak*, in Berria, 2005-I-25. (35. or.).

³⁸ LACARRA, J. M. Historia política del Reino de Navarra. III. alea. Aranzadi argit. Iruñea, 1973. (13-136. or.).

³⁹ YANGUAS MIRANDA, J. Diccionario de Antigüedades del Reino de Navarra. Iruñea, 1840. (708, 709. or.).

⁴⁰ ORELLA, J. L. *Los orígenes de la Hermandad de Guipúzcoa (Las relaciones Guipúzcoa-Navarra en el siglo XIII-XIV)*, in Cuadernos de sección. Historia-Geografía, 3. zk. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1984. (26, 27, 38, 44, 45, 49, 52-59, 69, 71, 75, 76, 83-95. or.).

⁴¹ ORELLA, J. L. eta beste. Euskaldunak historian barrena. Jokabideak, pentsamoldeak eta eguneroko bizitza. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1989. (95. or.).

⁴² RUIZ, A. eta AGIRRE, J. Euskal Herriko Erdi Aroaren historiako dokumentu idatzi eta grafikoaren iruzkin-ereduak. UEU. Bilbo, 2006. (149-185. or.).

⁴³ ZABALA, P. *Beroaldiko euskal portuak*, in Arantzazuko Amaren Egutegia. (2006-IV-10).

⁴⁴ AGINAGALDE, F. B. Gipuzkoako dorretxeak eta leinuak. Bertan, 11. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1997. (14. or.).

⁴⁵ AIERBE IRIBAR, R. Historia del condado de Oñate y señorío de los Guevara (S. XI-XVI). II. Documentos. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1985. (18-22. or.).

⁴⁶ MITXELENA, K. Textos arcaicos vascos. Minotauro argit. Madril, 1964. (66-68. or.).

⁴⁷ ORELLA UNZUE, J. L. Instituciones de Gipuzkoa y Oficiales Reales en la Provincia (1491-1530). Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (102. or.).

⁴⁸ XX. Arboles genealógicos de los poseedores de Lili. Lilitarren artxiboa. San Telmo Museoa. Donostia. 22. paper sorta.

⁴⁹ PORTILLA, M. J. *La Cofradía de Alava y sus cofrades en la última Junta de Arriaga en 1332*, in Historia del Pueblo Vasco 1. Erein. Donostia, 1978. (191-221. or.).

⁵⁰ GOMEZ PIÑEIRO, F. J. Historia de las Juntas Generales y Diputación Foral de Gipuzkoa. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1992. (23, 24. or.).

⁵¹ ELOSEGI, J. *Juntas Generales y Particulares de Guipúzcoa*, in Real Sociedad Bascongada de Amigos del País. XXXIV. urteko buletinaren separata. 3 eta 4. koadernoak. Donostia, 1978. (538. or.).

⁵² G. ATIENZA, J. La España Mágica de la A a la Z. Los Enclaves Templarios. Martinez Roca argit. Barzelona. (38, 39, 43, 364-367. or.).

- ⁵³ ZABALA, E. *Amaitu da kondaira beltza*, in Berria, 2007-X-26. (49. or.).
- ⁵⁴ MARTINEZ DIEZ, G. *La cruz y la espada. Vida cotidiana de las órdenes militares españolas*. Plaza y Janes argit. Bartzelona, 2002. (310. or.).
- ⁵⁵ RODRIGUEZ DE LAMA, I., Colección Diplomática Medieval de la Rioja (923-1225). Probintziako Diputazioa. Logroño, 1978. (343, 344. or.).
- ⁵⁶ GOÑI GAZTANBIDE, J. *Historia de los obispos de Pamplona. s. XIV-XV. II. alea*. Iruñea, 1979. (28-31, 35, 277-285. or.).
- ⁵⁷ URTEAGA, M. eta beste. *Guía Histórico Monumental de Gipuzkoa*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1992. (75. or.).
- ⁵⁸ USABIAGA, H. *Asteasu, Irura, Anoeta, Aduna, Alkiza, Larraul, Zizurkil-Ernialde*. Donostiako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1974. (98. or.).
- ⁵⁹ LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta LEMA PUEYO, J. A. Colección de documentos medievales del convento de San Bartolomé (San Sebastián) (1250-1515). Fuentes documentales medievales del País Vasco, 58. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1995. (14, 15, 88, 90. or.).
- ⁶⁰ OLAETXEA LABAIEN, J. B. *Reflexiones filológicas en torno a una arcáica toponimia de Zumaia*, in *Fontes Linguae Vasconum*. 31. urtea, 81. zk. 1999. (305, 306. or.).
- ⁶¹ Itegi lekua bada Zarautzen Getaria aldera, itsas ondoan Santa Barbara barrenean, eta hor, Getariako partean, Ubidi errota dago, agian agirian aipatzen den Itegi errota. Bestalde, Orreagak Zumaian eta inguruan zituen ondasunen beste izen batzuen kokalekua ere ez dugu aurkitu. Hauek dira leku-izen horiek: Zabaliaga (Itziarko partean) eta Baratzeaga.
- ⁶² ODRIOZOLA, L. *Historia de Zumaia*. Zumaia, 1998. (42-45. or.).
- ⁶³ XX. Zestoa. Zumaia. Valladolid. Carta ejecutoria sobre los límites y jurisdicción entre Zumaia y Zestoa, y la pertenencia de San Miguel de Aizarnazabal a la tierra de Saiaz y la de Oikia (traslado). (Valladolidko Kantzelaritzako Artxiboa. Pleitos civiles. Zarandona y Balboa. Pleitos fenecidos. 922/1. (II. koadernoko 88, 414-440, 443. or.).
- ⁶⁴ BARRENA, E. eta HERRERO, V. J. *Archivo Municipal de Deba. II. Libro de apeos y ventas de tierras concegiles. (1482-1483)*. Fuentes documentales medievales del País Vasco, 124. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 2006. (198. or.).
- ⁶⁵ MUJIKA, L. M. *Euskal Toponimiazko Materialak. XII alea*. Gipuzkoako kostaldea. Azpeitia, Aia, Deba. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1989. (427-429. or.).
- ⁶⁶ HERRERO, V. J. eta BARRENA, E. *Archivo Municipal de Deba. (1181-1520). I. Fuentes documentales medievales del País Vasco*, 123. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 2007. (53. or.).
- ⁶⁷ GOÑI GAZTANBIDE, J. *El Oficial Foráneo de San Sebastián del siglo XIV al XIX*, in *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*. Donostia, 1969. (11, 12. or.).
- ⁶⁸ ARBIDE ELORTZA, I. eta beste. *Ferrerías en Legazpi*. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1988. (20-38. or.).

⁶⁹ AIERBE IRIBAR, R. M. eta ELORTZA MAIZTEGI, J. Archivo Municipal de Zestoa (1338-1520). Fuentes documentales medievales del País Vasco, 136. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 2008. (1-5. or.).

⁷⁰ DIEZ DE SALAZAR, L. M. Ferrerías guipuzcoanas. Instituto Doctor Camino. Donostia, 1997. (86, 363, 374, 502-508 or.).

⁷¹ CIRIQUIAIN GAIZTARRO, M. *Los astilleros fluviales*, in Munibe, 1958. 10 (1-2). Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 1958. (9, 10. or.).

⁷² LEIZAOLA, J. M. La marina civil vasca en los siglos XIII, XIV y XV. Sendoa argitaletxea. Donostia, 1984. (Lehen zatia, 30-38. or. Bigarren zatia, 29, 30. or.).

⁷³ ERENTXUN ONZALO, J. Cestona. Donostiako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1970. (116. or.).

⁷⁴ ERENTXUN ONZALO, J. Arrona, Aizarna, Oiquina, Aizarnazabal, Iraeta, San Miguel de Artadi. Donostiako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1975. (34, 35. or.).

⁷⁵ ERENTXUN ONZALO, J. Apuntes históricos de la villa de Santa Cruz de Cestona. Zarautz, 1948. (34, 35. or.).

⁷⁶ ROLDAN GUAL, J. M. Colección diplomática del archivo Municipal de Tolosa. Tomo I. (1256-1407). Fuentes documentales medievales del País Vasco, 36. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1991. (42, 45, 55. or.).

⁷⁷ XX. Real sobre Gibraltar. Carta sentencia enviada a Lope Diaz de Rojas, merino mayor de Gipuzkoa, del pleito de Fernando Martinez de Elorriaga y el concejo de Monreal de Deba, sobre el talar robles de los utilizados para las naos y galeras para hacer carbón en la ferrería de Arroa, que es entre el agua de Mendaro y Legazpia, que va por Zestoa y por Irusta (Iraeta) en las tierras de Mendaro y Legazpia. (Valladolidko Kanzelaritzako Artxiboa. [38.7] Pergaminoak bilduma. 38. karpeta, 7.a.).

⁷⁸ ZIERBIDE, R. *Indice completo de antropónimos citados en el Becerro de Leire*, in Fontes Linguae Vasconum, 1978. (88. or.).

⁷⁹ HIDALGO DE CISNEROS, C. eta beste. Colección documental del Archivo General del Señorío de Vizcaya. Fuentes documentales medievales del País Vasco, 9. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1986. (11, 12. or.).

